

DOKUMENTUA

ZAHARTZAROA ETA BAKARDADE EGOERAK URRETXUN

Bakarrik bizi diren adineko pertsonen inguruko
diagnostikoa

2020ko Martxo



AURKIBIDEA

1.	SARRERA.....	4
2.	METODOLOGIA.....	5
3.	MARKO KONTZEPTUALA	7
	Zahartzaroa eta zahartze prozesuak: definizio bat	7
	Zahartzaroa gaur egun: ezaugarri nagusiak	9
	Adineko pertsonen zuzendutako arreta eta zerbitzuak: bide berriak eraikitzen.....	10
	Zahartzaroa eta bakardadea: ertz anitzeko errealitatea	13
	Zahartzaroa eta genero ikuspegia.....	15
4.	MARKO ESTADISTIKOA	17
	Urretxun bakarrik bizi diren adineko pertsonen ezaugarri nagusiak.....	17
	Urretxun bakarrik bizi diren adineko pertsonen banaketa espaziala	21
	Bakarrik bizitzeari lotutako zaugarritasun faktoreak.....	27
	Jatorria.....	28
	Egoera ekonomikoa.....	29
	Osasuna	32
	Babes sarea eta laguntza harremanak	36
	Aisialdia eta parte hartze soziala.....	38
	Adineko pertsonen zuzendutako zaintza zerbitzuak eta bere erabilera Urretxun	39
	Mendekotasun egoera batean dauden adineko pertsonen zuzendutako zerbitzu eta diru- laguntzak	39
	Bakarrik bizi diren adineko pertsonen zuzendutako zerbitzuak	46
	Adineko pertsonen parte hartzerako zerbitzuak	48
5.	BIBLIOGRAFIA.....	50
6.	ERANSKINAK.....	51
	ERANSKINA 1. URRETXUKO BAKARDADEAREN MAPA OSATZEKO EGIN DEN GUNEEN ARABERAKO SAILKAPENA (10)	51

1. SARRERA

Bakarrik bizi diren adineko pertsonen egoera interes handiko gaia bilakatzen ari da erakunde publikoentzat. Interes honen atzean, alde batetik, adineko populazioaren hazkundera dago, baina baita ere zahartzaroa ulertzeko moduetan eta honi lotutako bizipenetan garatzen ari diren ikuspegi eta esperientzien inguruko ez-ezagutza ere.

Gainera, badago adineko pertsonen zaintzaren ardura, familiaren arlo pribatutik esparru publikora eskualdatzen ari denaren sentrazio bat. Horrek ere eragiten du erakunde publikoek gai honetan paper aktibo bat, eta akaso, lidergo bat eduki nahi izatea. Azken finean, duela gutxi arte familiako kide zaharrenen zaintza senitarteko beste kide batzuk, emakumeak, zehazki, bere gain hartuko zutela zalantzan jartzen zuten pertsona edo erakundeak gutxi ziren.

Gaur egun berriz, ohikoa da belaunaldien arteko akordio tazitu hau edo *status quo*-a hausten ari dela entzutea. Honen atzean dauden arrazoiak, noski, anitzak dira: emakumeen emantzipazioa eta askapen prozesuak, familia egituretan eman diren aldaketak, etika pertsonalean eta balore sozialetan ematen ari direnak, besteak beste. Edozein kasutan, faktore guzti hauek azken hamarkadetan bakarrik bizi diren adineko pertsona kopuruak modu nabarmenean gora egin izana eragin du gure inguruko herri eta hirietan eta Urretxu ez da honen aurrean salbuespen bat.

Asko dira azken urteetan bakarrik bizi diren adineko pertsonen egoera zein den ezagutzeko egin diren ikerketak. Dena den, erronka malkarra dela agerian da eta oraindik ez dago egoera hauen atzean ematen diren errealitate desberdinen guztizko ezagutza bat. Beraz, bide honetan pauso bat gehiago emateko asmoz, ikerketa honetan Urretxun bakarrik bizi diren adineko pertsonen errealitatera gerturatzen saiatuko gara, bai ikuspegi kuantitatibo zein kualitatibo batetik eta ahal den heinean gertakari sozial honi Urretxuren kasuan nola erantzun ahal zaion proposatuz.

Jarraian aurkitu duzun lana **bost atal** nagusietan banatuta dago. Lehenik eta behin, erabili den metodologiaren deskribapen bat egiten da. Gero, gaiaren inguruko bibliografia kontsultatuz osatu den marko kontzeptual bat aurkitu daiteke. Hirugarrenez, iturri estatistiko desberdinetatik jasotako informazioa baliatuz, Urretxun bakarrik bizi diren pertsona kopuruaren eta hauen egoeraren deskribapen estatistiko bat egiten da. **Laugarren atalean berriz**, ikerketan zehar egin diren elkarrizketa desberdinetatik jasotako informazioa baliatuz, bakarrik bizi diren adineko pertsonen fenomenora gerturatzen gara ikuspegi kualitatibo batetik. **Azkenik**, ikerketatik ateratako ondorio nagusi batzuk jasotzen dira eta baita ere gai honen inguruan herrian esku hartzeko hainbat proposamen ere.

2. METODOLOGIA

Atal honetan ikerketa honen baitan Urretxun bakarrik bizi diren adinekoen gaiari gerturatzeko baliatu dugun metodologiaren deskribapena egingo da.

Lehenik eta behin, gaiari gerturatzeko **errebisio bibliografiko** bat egin da. Errebisio honen helburua gai honi buruz Gipuzkoan, Euskal Herrian eta Espainian azken urteetan argitaratutako lan eta ikerketa esanguratsuak identifikatzea izan da. Gainera, zahartzaroa eta egungo zahartzaroaren ezaugarriak zeintzuk diren ezagutzeko bibliografia ere kontsultatu da. Azkenik, adineko pertsonak artatzeko osasun eta zaintza zerbitzuetatik, hala nola ikuspegi komunitario batetik gaur egun baliatzen diren paradigma desberdinak ere bildu dira. Egindako errebisio bibliografikotik lan honen marko kontzeptuala eta estatistikoa osatzeko informazioa atera dugu. Kontsultatu den bibliografia gutzia lan honen amaieran aurkitu daiteke.

Bigarrenez, **metodologia kuantitatiboa** erabili da marko estatistikoa osatzeko. Zehazki, Urretxuko erroldako datuen ustiaketa bat egin da, herrian bakarrik bizi diren adineko pertsona kopurua eta hauen ezaugarri sozio demografikoak ezagutzeko. Metodologia hau erabili izanak balio erantsi handia ematen dio lan honi, gaiarekiko gerturapen estatistikoetan ez bezala, kasu honetan Urretxun bakarrik bizi diren adineko pertsona oro kontutan hartu baita. Hala ere, egia da, iturri estatistiko orok bezala, udal erroldak ere nolabaiteko zehaztugabetasun edo alborapena duela eta badagoela, beraz, eskaintzen diren datuetan errore margen txiki bat. Dena den, iturri estatistikoaren artean balio handikoa da udal errolda eta ezinbestekoa izan da datu hauetara izandako sarbidea jarraian aurkezten den lana burutu ahal izateko.

Gainera, udal erroldako datuek populazioa geografikoki kokatzeko eskaintzen duten aukera baliatuz, **Informazio Geografikoko Sistema (GIS)** bat erabili da eta Urretxun bakarrik bizi diren adineko **pertsonen kokapen geografikoa** ere egin da. Horretarako, herria 10 eremu desberdinetan banatu da, bertako errealitate espazial eta sozio demografikoa kontuan izanda. Horrela, herria hurrengo 10 guneean sailkatu zen:

- Alde zaharra.
- Aparicio.
- Barrenkale - San Martin.
- Basagasti-Lilibaso-Sorginzulo.
- Elizalde-Gurutze.
- Erdialdea.
- Ipeñarrieta –pagoeta.
- Landa eremua.

- Mundo mejor.
- Santa Barbara.

Herriko gune hauen deskribapen zehatzago bat izateko eta gune bakoitzaren ezaugarri sozial eta fisiko orokorrak zeintzuk diren jakiteko, jo ERANSKINA 1 atalera, dokumentu honen amaieran .

Hirugarrenez, Urretxun bakarrik bizi diren adineko pertsonen errealitate eta beharren inguruko ulermen sakonago bat edukitzeko **metodologia kualitatiboak** ere erabili ditugu. Zehazki, Urretxun bakarrik bizi diren adineko pertsonen banakako elkarrizketak egin dizkiegu (10 elkarrizketa) eta bi eztabaida talde ere egin ditugu; lehenengoa, osasun eta zaintza zerbitzuetako langileekin eta bigarrena adineko pertsonen parte hartzea bideratzeko zerbitzu komunitario desberdinetako langileekin.

Elkarrizketetan eta talde eztabaidetan parte hartu duten pertsonak Urretxuko Gizarte Zerbitzuen bitartez identifikatu dira eta haien bidez egin da kontaktua ere.

Elkarrizketa indibidualetan parte hartu duten pertsonak aukeratzeko irizpideei dagokienez, adin desberdinetako pertsonak egotea bermatu da, jatorria eta bakarrik bizitzeko arrazoiak ere kontuan izanik. Sexuari dagokionez, parekidetasuna bilatu da baina, azkenean, 4 gizonetako eta 6 emakumetako elkarrizketatu dira. Jarraian, pertsona hauen ezaugarriak zeintzuk diren adierazten da:

- *Elkarrizketa 1*: Gizona, 75 urte; 12 urte bakarrik bizitzen; ezkongabea.
- *Elkarrizketa 2*: Gizona, 82 urte; 5 urte bakarrik bizitzen; ezkondua baina emaztea erresidentzia batean bizi da.
- *Elkarrizketa 3*: Emakumea, 85 urte; 4 urte bakarrik bizitzen; alarguna.
- *Elkarrizketa 4*: Emakumea, 75 urte; 15 urte bakarrik bizitzen; ezkongabea.
- *Elkarrizketa 5*: Emakumea, 70 urte; 8 urte bakarrik bizitzen; alarguna.
- *Elkarrizketa 6*: Emakumea, 84 urte; 5 urte bakarrik bizitzen; alarguna.
- *Elkarrizketa 7*: Emakumea, 78 urte; 15 urte bakarrik bizitzen; ezkongabea.
- *Elkarrizketa 8*: Gizona, 75 urte, 3 urte bakarrik bizitzen; ezkongabea.
- *Elkarrizketa 9*: (Hau ez zen bakarrik bizi, alabarekin bizi zen, baina lehenago bakarrik bizi zen. Hala ere egin zitzaion elkarrizketa): Gizona, 92 urte, alarguna baina alabarekin bizi da.
- *Elkarrizketa 10*: Emakumea, 78 urte, 5 urte bakarrik bizitzen; alarguna.

3. MARKO KONTZEPTUALA

Atal honetan diagnostikoan zehar erabiliko ditugun hainbat kontzeptu eta zahartzaroaren inguruan izango dugun ikuspegia azaltzen dira. Lehenik eta behin, zahartzaroaren definizio bat eta gaur egun bizitzako aro honek dituen hainbat ezaugarri aipatzen dira. Bigarrenez, adineko pertsonen zuzendutako zerbitzu eta esku-hartzeetan erabiltzen diren ikuspegi eta metodologia nagusien deskribapen xume bat egiten da. Hirugarrenez, bakardadearen eta zahartzaroaren arteko lotura eta ibilbideak zeintzuk izan daitezkeen aztertzen da eta, azkenik, zahartzaroari genero ikuspegi batetik begiratzeko baliatu beharreko gako nagusiak zeintzuk diren azaltzen da.

Zahartzarora eta zahartze prozesuak: definizio bat

Zentzu biomediko batean zahartzarora bizitza osoan gorputzak jasaten duen higadura da, baina zahartzarora badu, noski, sozialki eraikitako esanahi bat ere. Historikoki eta mendebaldeko gizarteetan helduaren garaia alde batera uzten denean eta laneko bizitza produktiboari amaiera ematen zaionean hasi ohi da.

Dena den, azken hamarkadetan gauzatu den zahartzaroaren luzapenak eta honi lotutako bizi kalitatearen hobekuntzak elkarrekikotasun hau geroz eta txikiagoa izatea ekarri du. Gaur egun, adin-tarte honetan kokatzen diren pertsona asko ez dira oraindik “adineko pertsona” bezala identifikatzen. Horregatik, baliagarria da lehenbailehen zahartzarora definitzeko egin diren saiakera desberdinen errepaso bat egitea, hortik abiatuta, lan honetan baliatuko dugun ikuspegia zein izango den argitzeko.

Lehenik eta behin, kontutan eduki behar da zahartzarora ikertzeko orduan duela gutxi arte hainbat joera errepikatu direla. Alde batetik, historikoki ikuspegi biologiko bat gailendu da zahartzarora ikertzeko orduan, gorputza eta osasunari lotutako kontzeptuei zahartze prozesuen baitan lehen mailako garrantzia emanez eta, aldi berean, zentralak diren beste dimentsio batzuk alde batera utziz, alderdi psikologikoak eta sozialak, besteak beste. Azken aldian, aspektu hauek barnebiltzen dituzten teoria eta ikuspegi desberdinak gure inguruan zabaltzen badira ere – aurrerago azaltzen diren *Zahartze Aktiboaren Paradigma* edo *Pertsonarengan Oinarritutako Arreta Gerontologikoa* honen adibide dira –, zahartze prozesuei ematen zaien begirada zabaltzea eta zahartzaroari lotutako bizipen eta emozioei toki nabarmenago bat ematea beharrezkoa da.

Bigarrenez, askotan zahartzarora eta zahartze prozesuen ulermena adinari eta ustez adin-tarte desberdinetan gauzatzen diren hainbat gertaerei lotuta egin da: erretiroa, bikotekidearen edo gertuko pertsonen heriotza, menpekotasun egoera baten etorrera, etabar. Ikuspegi honen

arabera, gertaera hauek ordena kronologiko bat jarraitzen dute eta pertsonak haien zahartzaroaren inguruan duten bizipena baldintzatzen dute. Begirada honek baina, gertaera konkretuetan jartzen du arreta eta ez adineko pertsonak bizi dituzten barne prozesu eta aldaketetan. Honek, aldi berean, adineko pertsona guztientzako antzeko ibilbide eta esperientziak irudikatzen ditu eta zahartzaroaren inguruan iruditegi estereotipatu eta sinpleegi bat edukitzeko arriskua dakar.

Zahartzaroa ulertzeko bi modu hauetatik aldenduz, lan honen baitan bizitzako aro honi modu integral batean, prozesu bezala eta ikuspegi dinamiko batetik begiratzeko apustua egin nahi dugu. Santamarina eta López de Miguel (2002) autoreek, Prieto et al.-ek aipatuta (2009)¹ diotenez, “zahartze prozesuak, pertsonen arteko aniztasuna eta norberaren berezitasunak kontutan hartuta, subjektuaren maila desberdinetan – emozionala, psikologikoa, fisikoa eta soziala – eta ordena kronologiko zehatz bati nahitaez jarraitu gabe, ematen diren aldaketa geldo baina etengabeen metaketa dira”.

Ikuspegi honi jarraituz, zahartzaroan bizi ohi diren hurrengo azpi-prozesuak kontutan izango ditugu analisisian zehar (Prieto et al.; 2009)²:

- **Zahartzaroaren testuinguru eta iruditegian sartzea.** Prozesu hau pertsona askorentzako gorputzaren gainbehera sumatu baino lehen iristen da eta zahartzaroari lotutako hainbat ito sozial gauzatzearekin ematen da: erretiroa, aitona-amona izatea, etabar. Prozesu honek pertsonarentzako dakarren erronka nagusia bere zahartzarora definituko duten ekintza eta jarduera nagusiak definitzean datza eta horiei lotutako identitate bat sortzen hastea, ordu arte izan duen denboraren erabilera eta burutu dituen roletan ematen diren aldaketetara egokituz.

Garrantzitsua da igartzea gizarteak prozesu honekin lotzen dituen ito asko gizonezkoen eta hauen artean ibilbide profesional egonkor bat izan duten klase ertainekoen bizipena bakarrik islatzen duela, beste eredu batzuk alboratuz. Horrela, lan merkatutik kanpo zaintza lanetan ibilitako emakumeak edo lan baldintza gogor eta prekarioetan aritu diren pertsonak beste gertakari batzuk lotuko dituzte prozesu honekin. Lehenengo kasuan adibidez, denboraren erabilera eta roletan gauzatutako aldaketak ez dira horren nabarmenak izango eta bigarren kasuan, berriz, ogibideak gorputzean eta osasunean utzitako arrastoak presenteko egongo dira pertsonarengan.

- **Gorputzaren gainbehera.** Adineko pertsona orok lehenago edo beranduago bere gaitasun fisiko eta psikikoen gainbeherari aurre egin behar dio. Hortaz, zahartzaroan ematen den prozesu garrantzitsu bat norberaren gorputzak erakusten dituen mugetara egokitzea da. Muga hauek oso handiak direnean pertsona menpekotasun

¹ Prieto, D.; Etxeberria, I.; Galdona, N.; Urdaneta, E.; Yanguas, J. (2009) *“Las dimensiones subjetivas del envejecimiento”*. Colección Estudios. Serie Personas Mayores Nº 11007. Instituto de Mayores y Servicios Sociales (IMSERSO).

² *Ibid.*

egoera batera iristen da eta horrek beste erronka berri bat dakar: bere autonomia pertsonalaren gutxitzea asumitu eta kudeatzea, alegia.

- **Pertsonaren bakartzea eta isolatzea.** Zahartzaroan eman ohi den beste prozesuetako bat betiko denbora, espazio eta harremanekiko urruntze progresibo bat da. Batzuetan pertsona da bere ingurunetik aldentzen dena. Beste batzuetan berriz, pertsona horretatik gertu daudenak edo ohikoak zitzaizkion talde, ekintza eta espazioak dira desagertzen direnak. Edozein kasutan, prozesu honetan lortu beharreko erronka nagusia bizirik jarraitzearen ilusioa eta bizitzarekiko lotura mantentzea dira.

Hiru prozesu hauek askotan elkarri gurutzatzen badiote ere, posible da bata bestearengandik aldentuta edo modu independentean gauzatzea, pertsonaren bizitzako momentu desberdinetan, edo bata bestek baino garrantzi edo nagusitasun handiagoa hartzea momentu desberdinetan. Zahartzaroan ematen diren azpi-prozesu hauek bereizi eta definitzeak zahartzaroak duen konplexutasun eta aberastasuna agerian uzten du eta prozesu dinamiko eta aldakor gisa ulertu behar dugula gogorarazten digu. Gainera, ikuspegi honek badu beste abantaila bat: adineko pertsonentzako zerbitzu eta politiketan erdigunean jarri ohi den autonomia eta mendekotasunaren ardatzetik atera eta begirada zabaltzea, zahartze prozesuei lotuta dauden beste aspektuetan ere arreta jarritz.

Zahartzarora gaur egun: ezaugarri nagusiak

Gizarte guztiek sailkatzen dute bizitza zikloa etapa ezberdinetan, bakoitzari hainbat ezaugarri eta propietate esleituz; baita rola, arauak eta balio batzuk ere bai³. Hauek prestigiozko eskalak edo inklusio eta eskklusiozko barrerak eraikitzen dituzte. Gure gizartean, adinaren eraikuntza sozialak pertsonen arteko harremanak baldintzatzen ditu, balore pertsonalek, egoera sozio-ekonomikoak edo identitate sozial eta kulturalari lotutako beste kategoriek bezala. Lan honen baitan zahartzarora ulertzeko baliatuko dugun ikuspegia behin zehaztuta, gaur egungo zahartzaroaren bereizgarri nagusiak zeintzuk diren azalduko dugu.

Horretarako, hiru aspektu nabarmenduko ditugu: aniztasuna eta adineko pertsona izateko ereduaren dibertsifikazioa, adin aurreratu batean bizi kalitate on bat mantentzeko aukeraren hedapena eta “zaintza krisiak” adineko pertsonen zaintza ereduetan eta aukeretan eragin dituen aldaketak.

Aniztasunari dagokionez, adineko pertsonen taldea ugaritu den heinean eta gizarte baloreak malguagoak eta irekiagoak bilakatu diren heinean, zahartzaroari lotutako bizipen eta egoerek espresio desberdin asko hartu dituzte. Gaur egun jada ezin dugu hitz egin pertsona heldu

³ San Roman (1990) autorearen arabera, gizarte guztietan zahartzaroari atxikitzen zaizkion ezaugarriak hainbat faktoreen arabera aldatzen dira: 1) Gizartean gainbeheratu, agertu edo handitzen diren zahartzaroari lotutako hainbat funtzio sozialen arabera; 2) Gizarte jakin batean dauden baliabideen eta biztanle kopuruaren artean ematen den korrelazioaren arabera. (Iturria: *San Román Espinosa, T. (1990). Vejez y Cultura. Hacia los límites del sistema. Barcelona: Fundació Caixa de Pensions.*)

izatearen eredu bakarraz. Alde batetik, bizi itxaropenaren hazkundeak zahartzaroaren luzapena ekarri du eta, honi lotuta, bizi kalitateak ere hobera egin du, zahartzaroak garapen pertsonalerako eta proiektu berriak hasteko ematen dituen aukerak biderkatuz. Bestetik, pentsamolde eta bizimoduetan geroz eta irekiagoa den gizarte baten gaudelako, norbanakoaren interes eta balioetan oinarritutako erabaki eta bizi hautuak adineko pertsonen artean ugaritu egin dira, orain arte indarrean zeuden balore tradizional eta hertsietatik geroz eta gehiago aldentuz. Horrela, adineko pertsonen artean dagoen aniztasuna kontutan edukitzea ezinbestekoa da biztanleriaren parte honi zuzendutako politika eta zerbitzu publikoak diseinatzeko orduan (Prieto et al., 2015)⁴.

Zentzu honetan, dibertsitate afektibo sexuala, genero aniztasuna eta kulturartekotasuna bezalako aldagaiak kontutan hartzea geroz eta beharrezkoagoa izango da adineko pertsonen zuzendutako politika publiko eta zerbitzuak diseinatzekoan. Gaur egun ematen den errealitatea berriz, maila teorikoan aspektu hauek aitortu eta aintzatesten diren bitartean adineko pertsonen zuzendutako zerbitzuetan oraindik lanketa oso mugatua dela eta ikerketa arloan eman diren urratsak oraindik eskasak direla da. Horregatik, aspektu hauek kontutan hartzea eta zahartzaroaren iruditegian duten presentzia indartzen hastea ezinbestekoa dela uste dugu.

Bigarrenez, eta lehenago esan den bezala, zahartzaroan mantentzen den bizi kalitatea geroz eta altuagoa da. Honek zahartzaroari dimentsio eta aukera berriak ematen dizkio eta bizitzako aro honi lotutako esanahi eta bizipen positibo asko zabaltzen laguntzen du. Gauzak horrela, pertsona nagusiak ohituraz kontsideratzen ziren modua eta estereotipoak pixkanaka deseraikitzen ari gara eta gaur egun adineko pertsona batek etorkizun luzea, aukera eta hautabide desberdinak eta bizi proiektu berriei heltzeko eta aurre egiteko gaitasuna duela ulertzen da (Prieto et al.; 2009)⁵.

Hirugarrenez, gure gizartean eman diren hainbat eraldaketa sozialek adineko pertsonen zaintza eremuan izan duten inpaktua aipatzea ezinbestekoa da. Alde batetik, gizon eta emakumeen arteko harreman eta roletan izandako eraldaketak, gizarte tradizionaletan ematen zen lanaren banaketa sexual zorrotza pixka bat leundu du eta emakumeen ahalduntze eta autonomia garatu du. Bestetik, familia tradizionaletik aldentzen diren familia eta bizikidetzaren eredu berriak asko hedatu dira gurean. Bi aldaketa hauek orain arte gure gizartean adineko pertsonen zaintza bermatzeko eta belaunaldien arteko harremanak erregulatzeko indarrean zegoen sistema kolokan jarri dute. Horregatik, gure analisisian faktore hauek eta bere testuingurua kontutan edukitzea ezinbestekoa da.

Adineko pertsonen zuzendutako arreta eta zerbitzuak: bide berriak eraikitzen

⁴ Prieto, D.; Herranz, D.; Rodríguez, P. (2015) *“Envejecer sin ser mayor. Nuevos roles en la participación social en la edad de la jubilación”*. Estudios de la Fundación Pilares para la autonomía personal, Nº 2. Fundación Pilares para la Autonomía Personal.

⁵ *Ibid* 3.

Esan bezala, zahartzaroa bizi eta ulertzeko moduak aldatu egin dira gure gizartean azken hamarkadetan. Aldaketa hauei jarraiki, adineko pertsonei emandako arreta eta eskaintako zerbitzuak zeharo aldatu dira ere; pixkanaka, adineko pertsonen zaintza eta ongizatea esfera pribatuaren eta familiaren arlotik atera eta ardura publiko eta kolektibo gisa ulertzen hasi da. Egoera honek, erakunde publikoek gai honi heltzeko proposamen desberdinak egitea ekarri du. Atal honetan beraz, paradigma eta teoria berri hauen laburpen txiki bat egiten da.

Lehenik eta behin, *Zahartze Aktiboaren Paradigma* azalduko dugu. Ikuspegi honek gizarteek bizi duten zahartze prozesuetara egokitu behar direla aldarrikatzen du. Horretarako, zahartzaroarekiko gobernantza eredu berri bat proposatzen du, zahartzeko modu berriak pentsatu eta sustatuko dituenak eta lagunkoitasuna eta adineko pertsonen parte-hartzea bultzatuko duena:

“Zahartze aktiboaren planteamenduak zahartze osasuntsuarena baino ekintza-esparru inklusiboago bat eskaini nahi du; izan ere, zahartze-prozesuaren osasun-alderdiei soilik lotzen zaio azken hori. Zahartze aktiboak adinekoen giza eskubideen aitorpena du oinarri, baita Nazio Batuen Erakundearen printzipioak ere: hau da, parte hartzea, duintasunez bizitzea, laguntza jasotzea eta nor bere nahiak bete ahal izatea. (...) Horrez gain, adinekoek prozesu politikoan eta komunitateko bizitzako beste edozein esparrutan parte hartzeko duten erantzukizuna azpimarratzen du ere bai”.
(*Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, 2016*)⁶

Zahartzaro aktiboaren planteamenduak adineko pertsonen gizarteratzea eta parte-hartzea zahartzaro osasuntsu batentzako beharrezkoak direla ulertzen du. Hortaz, adineko pertsonetikiko aukera berdintasuna bermatu behar dela eta bizitza komunitario eta politikoan izan dezaketen parte hartzea babestu eta indartu behar dela defendatzen du. Horrek, adineko pertsonen herritar bezala parte hartu ahal izateko estrategiak garatu behar direla eta esparru publikoetan duten presentzia – elkartegintzan, aktibismoan, politikan – bultzatu behar dela esan nahi du.

Kontutan eduki behar da ere bai adineko pertsonen parte hartzea bultzatzeko orduan etengabeko elkarrizketak izan behar duela lankidetzaren horren oinarri. Izan ere, adineko pertsonen harremantzako dituzten moduak, estiloak, balio generazionalak eta ahalmenak desberdinak dira. Lehenik eta behin, parte hartze hori nola ematen ari den jakin behar da, zergatik eta zein bidetik iristen ari diren adineko pertsonak parte hartze espazioetara eta erakundeetara eta zein neurritan dauden bertan benetan integratuak. Guzti hau adineko pertsonen eraldaketa sozialarekiko duten ikuspegia eta hau bultzatzeko duten ahalmena baliatu ahal izateko egin behar dugu. Azken urteetan egitasmo berriak hedatzen ari dira adineko pertsonen parte hartzea bultzatzeko, askotan belaunaldiartekotasunean oinarrituta

⁶ Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza (2016). *Zahartze Aktiborako Euskal Estrategia, 2015-2020*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

eta egunerokotasunaren eta gertuko testuinguruen irakurketa politiko bat eginez. Ikuspegi hauek gure herri eta hirietan eraldaketa soziala eta bizitza eta harreman komunitarioak bultzatzeko oso erreferente baliagarriak dira eta oso presente egongo dira ere lan honetan (Bermejo, 2010)⁷.

Zahartzaro aktiboaren ikuspegiak zahartzaroaren eta adineko pertsonen inguruko begirada orokor bat eskaintzen duen bitartean, banan banako arreta bideratzeko beste moduko tresna edo eredu bat behar da. Eremu honetan azkenaldian zabaldu den ikuspegi nagusia Pertsonarengan Oinarritutako Arreta Gerontologikoa izan da. Arreta eredu honek adineko pertsonari zuzendutako zerbitzuetan arretaren kalitatea eta pertsonaren ongizatea maximizatzea ditu helburu eta bere bereizgarri nagusia “erabiltzailea dela ardatza bere arretan onartzea eta estrategiak proposatzea zerbitzuen erabiltzailea bera izan dadin eragiten dioten gaiari buruzko ahalik eta kontrol gehien izango duen pertsona bermatzea” da (Martínez, 2011)⁸. Ikuspegi hau baliatzea bereziki garrantzitsua da menpekotasun egoeretan dauden edo horrelako egoera batean erortzeko arrisku handia duten taldeekin lan egiterakoan, askotan zerbitzuen plangintza lehenesteko joera baitago, erabiltzaileen ongizatearen eta nahien gaintetik.

Pertsonarengan Oinarritutako Arreta Gerontologikoa hurrengo printzipioetan oinarritzen da (Martínez, 2011)⁹ : duintasuna, gaitasuna, autonomia, partaidetza, osokotasuna, mendekotasunik eza, banakakotasuna, gizarteratzea, ongizatea eta arretaren jarraitutasuna¹⁰. Ikusi daitekeenez, Zahartzaro Aktiboaren paradigmak eta Pertsonarengan

⁷ Bermejo, L. (coord.) (2010) *Envejecimiento activo y actividades socioeducativas con personas mayores guía de buenas prácticas*. Madrid. Editorial Médica Panamericana.

⁸ Martínez, T. (2011). “*Pertsonarengan oinarritutako arreta gerontologikoa*”. Gizartea Hobetuz: documentos de bienestar social, Nº 76. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

⁹ *Ibid.*

¹⁰ Martínez (2011) autoreak horrela definitzen du oinarri bakoitza: *Duintasuna*. Adinekoek, beren gaitasunei dagokienez dauden egoera alde batera utzita, beren desberdintasuna errespetatzeko, eta gizaki baliotsutzat hartzeko eta gainerako gizakiek bezalaxe errespetua merezi izateko eskubidea dute.; *Gaitasuna*. Adinekoek gaitasunak dituzte, behar dituzten babesak alde batera utzita, jardun egokiak garatzeko, maila handiagoan edo txikiagoan.; *Autonomia*. Adinekoek beren bizitzako kontrola izaten jarraitzeko eskubidea dute, eta, beraz, askatasunez jarduteko eskubidea.; *Partaidetza*. Adinekoek beren bizitzaren garapenari eragiten dioten erabakiak hartzeko garaian aurrean egoteko eskubidea dute.; *Osokotasuna*. Pertsona dimentsio anitzeko izakia da eta alderdi biologiko, psikologiko eta sozialak elkarreragiten dute harengan.; *Mendekotasunik eza*. Adinekoek beren eguneroko bizitzan ahalik eta mendekotasunik ezaren maila handienari eusteko eskubidea dute, baita besteekiko mendekotasuna gutxiagotuko duten eta beren egoerara egokituta dauden hainbat babes jasotzeko eskubidea ere.; *Banakakotasuna*. Pertsona guztiak berdinak dira herritar gisa dituzten eskubideak baliatzeari dagokionez, baina pertsona bakoitza bakarra eta ezberdina da.; *Gizarteratzea*. Adinekoak komunitateko kide aktiboak eta eskubideak dituzten herritarrak dira. Horregatik, baliabide komunitarioak lortu ahal izango dituzte eta horietaz baliatzeko aukera izango dute gainerako biztanleek bezalaxe.; *Ongizatea*. Adinekoek beren osasuna sustatzera bideratutako programak lortzeko aukera izango dute, baita beren ongizate pertsonala (fisikoa, materiala eta emozionala) hobetzeko aukera ere. Makaltasun- edo mendekotasun-egoeran dauden pertsonak, baita afektazio- eta desgaitasun-maila handiak dituztenean ere, eskubidea dute beren egoera eta ongizate subjektiboa hobetuko duten babesak jasotzeko.; *Arretaren*

Oinarritutako Arreta Gerontologikoak printzipio asko partekatzen dituzte eta adineko pertsonen eskubideei, parte hartzeari, gizarteratzeari eta ongizateari garrantzi handia ematen diote. Horregatik, aspektu hauek zentralak izango dira diagnostiko honetan burutuko dugun analisisian.

Zahartzaroa eta bakardadea: ertz anitzeko errealitatea

Oso ohikoa da gizarteak zahartzaroa bakardadearekin lotzea. Izan ere, adineko pertsonen haien babes sareak galtzeko edo ahultzeko arrisku handiagoa dute eta honek isolamendu soziala bizitzeko aukera handiagoak ematen ditu ere bai. Dena den, urteak igaro ahala, inguruko pertsonen heriotza gertaera ekidinezina da eta alargun geratzea oso ohikoa da, batez ere helduak diren emakumeen artean. Aldi berean, erretiroa, osasunaren galera edo instituzionalizazioa bezalako gertaerek adibidez, adineko pertsona askoren isolamendu soziala bultzatzen dute eta askotan bakardade sentimenduak agertzea eragiten dute (Pinazo eta Donio, 2018)¹¹.

Bakardadea, bere horretan, indibiduala eta subjektiboa den bizipen bat da, bizitzaren edozein garaian esperimentatu dezakeguna, alegia. Banakakoa dela esaten da bakoitzak bere moduan bizi duelako eta subjektiboa kanpotik ez direlako bakardadearen adierazleak ikusten eta horrela sentitzen den pertsonak bakarrik baieztatu dezakeelako bere egoera zein den (Pinazo eta Donio, 2018)¹². Hau horrela izanda ere, askotan, bakarrik bizitzearekin lotzen dugu bakardadearen esperientzia eta alderantziz ere, zaila egiten zaigu bakarrik bizi ez diren pertsonen artean bakardade egoerak identifikatzea.

Dena den, ikerketa eta autore askok azaltzen duten bezala, *bakarrik bizi*, *bakarrik egon* eta *bakarrik sentitzea* esperientzia eta egoera desberdinak dira. Bakarrik bizitzea bizikidetzaren neurgailu bat da eta ez du zertan pertsona bat bakarrik sentitzen denik edo isolatuta dagoenik esan nahi (Victor et al., 2000, Pinazo eta Donio-ren lanean, 2018)¹³. Bakarrik egotea, berriz, pertsona batek bakarrik igarotzen duen denborari egiten dio erreferentzia eta egoera horretan burutzen dituen ekintzekin eta hauei ematen dien esanahiarekin lotzen da. Sormena, autogogoeta, auto-erregulazioa, kontzentrazioa edo irakaskuntza bezalako prozesuak sustatzeko pertsona askok nahiago dute bakarrik egon, adibidez (Luanaigh eta Lawlor, 2008, Pinazo eta Donio-ren lanean, 2018)¹⁴. Azkenik, bakarrik sentitzea isolamendua kanpotik inposatuta

jarraitutasuna. Makaltasun- edo mendekotasun-egoeran dauden adinekoek eskubidea dute behar dituzten babesak jasotzeko, etengabe eta prozesuaren zirkunstantzia aldakorretara egokituta.

¹¹ Pinazo, S., Donio, M. (2018) *La soledad de las personas mayores: Conceptualización, valoración e intervención*. Colección estudios de la Fundación Pilares para la autonomía personal, Nº 5. Fundación Pilares para la Autonomía Personal.

¹² *Ibid.*

¹³ *Ibid.*

¹⁴ *Ibid.*

datorenean ematen da, pertsona hori bakarrik egotera edo bizitzera behartuta dagoenean, alegia (Castro, 2010, Pinazo eta Donio-ren lanean, 2018)¹⁵.

Kontzeptu hauetaz aparte, garrantzitsua da ere isolamendu soziala ere kontutan hartzea: hau gaizki bideratutako integrazio sozialaren neurri objektibo bat da eta pertsona batek harreman falta duenean edo harreman horiek kalitate baxukoak eta izaera gatazkatsua dutenean ematen da¹⁶. Isolamendu sozial egoerak ez bezala, bakardade sentimenduak subjektiboak dira eta pertsonak berak bere egoera nola bizi duen arabera dira.

Zentzu honetan, Cacioppo eta Patrick (2008) autoreek Pinazo eta Donio-ren lanean (2018)¹⁷ aipatzen den ikerketan adierazi zuten bezala, pertsona batek bakarrik igarotzen duen denborak ez du zertan eragiten pertsona horrek duen bakardade sentimenduan. Bestalde, badaude bakarrik sentitzen diren pertsonak baino sozialki isolatuta ez daudenak edo sare sozial murriztu bat izan arren, integratuta sentitzen direnak ere (Jong Gierveld & Havens, 2004, Pinazo eta Donio-ren lanean, 2018)¹⁸. Hau da, bakardade sentimenduak ez dira beti ere bakarrik egotearekin lotzen eta harreman edo babes sareak edukitzeak ez du bermatzen pertsona bat bakarrik sentituko ez dela ere ez.

Ikerketa desberdinen arabera, zailagoa da bakardade sentimenduak onartu eta ulertzea lagunduta dauden pertsonen artean, bai pertsonak zein bere inguruak ere sentimendu hori justifikatuko lukeen errealitate objektiborik ez dagoela uste duelako (Castro, 2010; Hawkley & Cacioppo, 2009, Pinazo eta Donio-ren lanean, 2018)¹⁹. Azkenik, bakardade sentimenduak bizi eta kudeatzeko moduak faktore kulturalak baldintzatzen dituzte ere bai. Herrialde bakoitzeko balio kulturalak pertsonengan bizitza tipo idealak eraikitzen dituzte eta horiek zer nolako bizitza nahi edo bilatzen dugun baldintzatzen dute, baita norberaren bizitzarekiko egiten dugun balorazioa edo dugun pertzepzioa mugatu ere (Yang & Victor, 2011, Pinazo eta Donio-ren lanean, 2018)²⁰. Hortaz, bi faktore hauek kontutan hartzea garrantzitsua izango da bakardade egoera batean dauden pertsonetara edozein esku hartze proposatzeko orduan.

Pertsonen balio eta identitate kulturala osatzen duten alderdien artean generoa da nabarmenetariko bat. Zentzu honetan, ikerketa askok jasotzen dute gizon eta emakumeen artean dagoen desberdintasuna bakardade sentimenduak garatu, kudeatu eta komunikatzeko orduan. Horrela, gizonezkoek bakardade sentimenduak bizitzeko arrisku handiagoa dute

¹⁵ *Ibid.*

¹⁶ FOESSA Fundazioak proposatzen duen Gizarte Bazterketako Indize Sintetikoa-ren arabera (ISES) isolamendu soziala hurrengo adierazleekin neurtu daiteke, besteak beste:

1) *Familiarteko laguntzarik ez duten pertsonak*: bere etxebizitzan beste pertsona batzuekin harremanik ez dutenak eta gaixotasun edo zailtasun egoera baten aurrean laguntza eskatzeko aukerarik ez dutenak.;
2) *Bizilagunekin gatazkak dituzten pertsonak*: bere bizilagunekin harreman txar edo txarrak dituzten pertsonak.;
3) *Instituzionalizatuta dauden pertsonak*: ospitaletan, egoitza psikiatrikoetan edo etxerik gabeko pertsonentzako zerbitzuetan bizi diren pertsonak.

¹⁷ *Ibid.* 13

¹⁸ *Ibid.*

¹⁹ *Ibid.*

²⁰ *Ibid.*

emakumeekin konparatuta, hauek bizitzan zehar sare sozial anitzagoak garatzen dituztelako: familiartekoak, lagunak eta bizilagunak, besteak beste. Emakumeek gizonen baino gertutasun handiagoa bilatzen eta baloratzen dute harreman sozialetan eta gizonen kasuan baino ohikoagoa da bikoteaz aparte, gertuko eta konfiantzazko beste pertsona batzuk edukitzea (Green et al., 2001 Pinazo eta Donio-ren lanean, 2018)²¹. Gizonezkoek berriz, bikotearen intimitatean gelditzeko ohitura handiagoa dute eta horrek espazio hori galdu ez gero haien bizitzan desoreka handiagoa eragiten du (Antonucci et al., 2002, Pinazo eta Donio-ren lanean, 2018)²². Gauzak horrela, gizonezkoen bakardade sentimenduak gertuko erlazio hauek galtzen dituztenean azaleratu ohi da eta emakumeenak, berriz, harreman estu hauek ez dituztenean, izan bikotekide, senide edo lagunekin (Buz & Prieto, 2013, Pinazo eta Donio-ren lanean, 2018)²³.

Emakume eta gizonen arteko beste desberdintasun bat bakardade sentimenduak kudeatu eta komunikatzeko ditugun estrategia eta gaitasunetan datza. Ikerketa askok emakumeak kulturalki beraien sentimenduz hitz egitea onargarriagoa dela adierazten dute eta horrek bakardade egoerak onartu eta hauei lotutako sentimenduak errazago komunikatzeko gai izatea eragiten du. Gizonezkoek berriz, haien sentimenduz hitz egiteko oztopo gehiago dituztela antzematen da, bereziki horrek haien zaugarritasuna onartzea dakarrenean (Nicolaisen & Thorsen, 2014; Perlman, 2004; Savikko et al., 2005; Victor et al., 2000, Pinazo eta Donio-ren lanean, 2018)²⁴. Berez, burutu diren ikerketen arabera, badirudi “bakardade” kontzeptua modu esplizitu batean aipatzen ez denean gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak gutxitu edo desagertu ere egiten direla (Borys & Perlman, 1985, in Perlman, 2004, Pinazo eta Donio-ren lanean, 2018)²⁵. Honek, bakardadeak eta horri lotutako esanahi eta sinboloek maskulinitasun hegemonikoaren ereduarekin lotzen diren independentzia eta gogortasunaren baloreekin talka egiten duela adierazten du.

Zahartzaroa eta genero ikuspegia

Zahartzaroa eta honen inguruko esanahiak, gure kulturaren gertatu ohi den bezala, perspektiba androzentriko batetik eraikiak izan dira. Baina emakume eta gizonen bizitzako aro honen inguruan duten bizipena eta esperimendatzen dituzten bizi baldintzak zeharo desberdinak dira askotan. Desberdintasun hauek gizon eta emakumeek gizartean dituzten rol bereiziek eta hauek haien bizi baldintzetan eta bizi itxaropenean duten eraginak gauzatzen dituzte batik bat.

Horrela, genero desberdintasunak oso nabarmenak dira, batez ere arlo demografikoan: adineko emakumeak gehiago dira eta gehiago bizi dira. Arlo sozioekonomikoan ere desberdintasunak nabariak dira: emakumeek diru sarrera gutxiago izaten dituzte gizonezkoek baino eta, honen ondorioz, haien bizi kalitatea gizonena baino okerragoa izan ohi da. Kasu askotan, emakumeen pobrezia egoerak beraiantzat desegokiak diren etxeetan bizitzera

²¹ *Ibid.*

²² *Ibid.*

²³ *Ibid.*

²⁴ *Ibid.*

²⁵ *Ibid.*

eramaten ditu eta elikagarria ez den dieta bat eramatera ere (Neri, 2014, Donio-ren lanean, 2017)²⁶. Gizonak berriz pobrezia-aren aurrean babes handiagoa izan ohi dute, ikasketa maila altuagoa lortzeko aukera eta bizitzan zehar diru-sarrera handiagoak izan dituztelako. Emakume eta gizonen arteko arrakala ekonomiko hau munduko toki gehienetan ematen da eta, aurrerago ikusiko dugunez, Euskadin ere hau da egungo egoera.

Adineko emakumeak gainera, dependentzia fisiko handiagoekin bizi dira eta egoera hauetan tratatu txar, arduragabekeria eta abandonua bizitzeko arrisku handiagoa dute gizonekin konparatuta (Neri, 2014, Donio-ren lanean, 2017)²⁷. Desberdintasun hau neurri handi batean emakumeen bizi itxaropena altuagoa izateak gauzatzen du, baina genero rolen banaketak eta horrek identitate pertsonal eta sozialetan duen eraginak ere berebiziko pisua du. Emakumeak, adibidez, gizonak baino gehiago bizi dira eta bakarrik bizitzeko prest egoten dira alargun gelditu edo beraien generazioko pertsona asko galdu dituztenean; aldi berean, senitartekoek errazago (edo lehenago) hartzen dute bere gain gizezko baten zaintza asumitzeko erabakia (Castro, 2015; Dahlberg et al., 2015; Ferreira-Alves et al., 2014; Aartsen & Jylha, 2011).

²⁶ Donio, M., 2017. *La soledad de las mujeres mayores que viven solas*. Tesis Doctoral. Universitat de Valencia. Disponible en: <http://roderic.uv.es/handle/10550/58362> (Kontsulta: 2019ko Urriak 1).

²⁷ *Ibid.*

4. MARKO ESTATISTIKOA

Urretxun bakarrik bizi diren adineko pertsonen ezaugarri nagusiak

Urretxun 65 urtetik gorako 1.557 pertsona bizi dira, 880 emakume (%59,7) eta 677 gizon (%45,9). Herrian bizi den biztanle kopurua kontutan hartuta (6.756 pertsona), hamar pertsonetatik bi baino gehiago adin tarte honetan kokatzen direla erakusten dute datuek (%23), 85 urtetik gorakoak biztanleriaren %3,2a diren bitartean (215 pertsona).

Datu hauek inguruan dauden beste herrienekin konparatzen denean, Urola Garaiko herrien artean Urretxu dela adineko populazio txikiena duena antzematen da; batez ere 85 urte baino gehiago duten pertsonak kontutan hartzen badira. Legazpi eta Zumarraga dira eskualdean populazio zaharkituenak dituzten herriak. Dena den, esan beharra dago herrien artean ematen diren desberdintasun txikiak direla – 2 puntu inguru – eta, oro har, eskualdeko herriek populazio zaharkitu bat dutela. Orokorrean, Gipuzkoako batez bestekotik gora, alegia.

UROLA GARAIAK ADINEKO POPULAZIOAREN KOPURUA ETA EHUNEKOA, ADIN-TARTE ETA UDALERRIAREN ARABERA. 2018.

	Urretxu		Zumarraga		Legazpi		Ezkio-Itsaso		Gipuzkoa	
	N	%	N	%	N	%	N	%	N	%
65 urte eta gehiagoko populazioa	1557	23	2398	24,7	2140	25,6	141	23,1	160.664	22,2
85 urte eta gehiagoko populazioa	215	3,2	449	4,6	403	4,8	28	4,6	26.976	3,7
Guztira	6756	100	9728	100	8371	100	611	100	723.576	100

1. Taula: Urola Garaian adineko populazioaren kopurua eta ehunekoa, adin-tarte eta udalerrriaren arabera.

2018ko urtarrilak 1eko datuak.

Iturria: Biztanleen Udal Errolda. Urretxuko Udala.

Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Bakarrik bizi den adineko pertsona kopuruari dagokionez, 2018an 577 pertsona ziren Urretxun bakarrik bizi zirenak. Kopuru hau herriko populazioaren %8,5a eta 65 urtetik gorako pertsonen %37a da. Kasu honetan zenbatekoak ezin dira inguruko herriekin konparatu, estatistika ofizialek ez baitute herri txikiak adierazgarriak diren datuak jasotzen. Badago, dena den, gai hau Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) aztertu duen ikerketa bat eta, horren arabera, 2014 urtean Euskadin bizi ziren 65 urtetik gorako pertsonen %24,5a bizi zen bakarrik (Del Barrio, Mayoral eta Sancho, 2015). *Gipuzkoako pobrezia eta gizarte bazterketari buruzko 3. Inkesta-k*, berriz, lurralde honetan 65 urtetik gorako pertsonen herena dela bakarrik bizi dena adierazten du (% 33,4). Datu hauen arabera, Urretxuko egoera EAEn ematen dena baino nabarmen altuagoa litzateke, baina ez, ordea, Gipuzkoan ematen denarekin alderatuta, zeinarekiko 3,6 puntuko diferentzia soilik dagoen.

Dena den, datu hauek interpretatzerakoan kontutan eduki behar da ez direla zuzenean konparagarriak; batetik, bi datuen erreferentziazko urtea desberdina delako eta, bestetik, Urretxun bildutako datuek zuzenean populazio osoa kontutan hartzen dutelako. EAEn egindako ikerketak berriz lagin bat soilik hartzen du eta, hortaz, gaiarekiko hurbilpen estatistiko bat besterik ez du lortzen.

Datu hauek, beraz, gai honen inguruan dagoen ezagutza oraindik eskasa dela erakusten dute eta ditugun tresna estatistikoak ez daudela errealitate hau jasotzera egokitura, nahiz eta adineko pertsonen bakardade egoerek gizarte-politika publikoaren interes geroz eta gehiago berenganatu.

URRETXUN 65 URTEK GORA DUTEN BIZTANLEEN ARTEAN BAKARRIK BIZI DIRENAK, ADINAREN ETA SEXUAREN ARABERA. 2018.

	Emakumeak		Gizonak		Guztira	
	Bakarrik bizi direnak (N)	Adin-tarte horren populazioaren %	Bakarrik bizi direnak (N)	Adin-tarte horren populazioaren %	Bakarrik bizi direnak (N)	Adin-tarte horren populazioaren %
ADIN TARTEA						
65-79	158	29,3	152	31,5	310	30,3
≥80	229	67,2	38	19,6	267	49,9
Guztira	387	44,0	190	28,1	577	37,1

2. Taula: Urretxun 65 urtetik gora duten biztanleen artean bakarrik bizi direnak, adina eta sexuaren arabera.
2018ko urtarrilak 1eko datuak.
Iturria: Biztanleen Udal Errolda. Urretxuko Udala.
Egilea: Farapi Koop. Elkarte

Baina kopuruetatik harago, adineko pertsona batek bakarrik edo beste norbaitekin bizitzeko dituen aukerak baldintzatzeke orduan, badira gakoak diren bi faktore: sexua eta adina. Goiko taulan aurkezten diren datuei erreparatu ez gero, agerikoa da adinak gora egin ahala gehiago direla bakarrik bizi diren pertsonak, hala nola gehiago direla bakarrik bizi diren emakumezkoak.

Urretxuren kasuan, 65 eta 79 urte bitarte duten pertsonen artean hamarretatik hiru dira bakarrik bizi direnak (%30,3); 80 urtetik gorakoen artean, berriz, ia populazioaren erdia da egoera horretan dagoena (% 49,9). Datu hauek berriro ere EAEn ematen direnekin alderatu ez gero, Urretxun bakarrik bizi diren adinekoen kopurua nahiko altua dela antzematen da. Lehen aipatutako ikerketaren arabera, adibidez, EAEn 80 urtetik gorakoen %31,5a soilik bizi da bakarrik. Dena den, lehen esan den bezala, gerta liteke gai honen inguruan egin ohi diren ikerketek gertakari honek gizartean duen hedapena gutxiatea eta, hortaz, konparaketa hau tentuz hartu beharrekoa da.

Urretxun bakarrik bizi diren adineko pertsonen adinari dagokionez, udal erroldako datuen arabera, pertsona hauen batez besteko adina 78,4 urte da ($\sigma= 8,6$), pertsona gazteenek 66 urte dutelarik (39 pertsona guztira) eta zaharrenak 99 urte (pertsona bakar batek du adin hau). Adin tarte desberdinak kontutan hartuta, bakarrik bizi diren adineko hamar pertsonetatik bi inguru

65 eta 69 urte bitarte dute (%21,7, 125 pertsona), 70-79 adin tartean kokatzen direnak %32,1a (185 pertsona) osatzen dute, gutxi gora behera, 80 eta 89 urte bitarte dutenek bezala (%32,9, 190 pertsona). Azkenik, 90 urte baino gehiago dutenek %13,3a osatzen dute (77 pertsona). Laburbilduz, Urretxun bakarrik bizi diren adineko pertsonen erdia baino gehiago 80 urte baino gutxiago ditu (%53,7, 310) eta %46,2ak (267 pertsona) 80 urte baino gehiago.

URRETXUN BAKARRIK BIZI DIREN 65 URTETIK GORAKO PERTSONEN ADINA ETA SEXUAREN ARABERAKO BANAKETA. 2018.

ADIN TARTEA	SEXUA								
	Emakumeak			Gizonak			Guztira		
	N	% bertikala	% horizontala	N	% bertikala	% horizontala	N	% bertikala	% horizontala
65-69	43	11,1	34,4	82	43,2	65,6	125	21,7	100,0
70-74	56	14,5	57,1	42	22,1	42,9	98	17,0	100,0
75-79	59	15,2	67,8	28	14,7	32,2	87	15,1	100,0
80-84	99	25,6	90,8	10	5,3	9,2	109	18,9	100,0
85-89	67	17,3	82,7	14	7,4	17,3	81	14,0	100,0
>90	63	16,3	81,8	14	7,4	18,2	77	13,3	100,0
Guztira	387	100,0	67,1	190	100,0	32,9	577	100,0	100,0

3. Taula: Urretxun bakarrik bizi diren 65 urtetik gorako pertsonen adina eta sexuaren arabeko banaketa.

2018ko Urtarrilaren 1eko datuak.

Iturria: Biztanleen Udal Errolda. Urretxuko Udala.

Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Generoari dagokionez, oso modu argian antzematen da gizon eta emakumeek bakardade egoeren aurrean duten zaugarritasuna adinaren arabera aldatzen dela. Horrela, Urretxun bizi diren 65 eta 79 urte bitarteko emakumeen %29,3a eta gizonezkoen %31,5a soilik bizi da bakarrik bere etxean. 80 urte baino gehiago duten pertsonen artean, berriz, kopuru hau bikoiztu egiten da emakumeen kasuan (%67,2) eta hamar puntu baino gehiago egiten du behera gizonezkoen artean (%19,6).

Generoaren arabeko desberdintasun honen atzean arrazoi ugari dago. Lehenik eta behin, emakumeen bizi itxaropena gizonezkoena baino altuagoa da gure gizartean eta horrek, oro har, emakumeek haien bikotekidea baino gehiago biziitzea eragiten du, bakardade egoeren aurrean zaugarriagoak bilakatuz. Bestetik, ideologia, ohitura eta harreman sozial eta familiar patriarkalek, zahartzaroan zehar, gizonek, senitarteko laguntza eskuratzeko orduan emakumeek baino erraztasun handiagoa eduki ohi dutela demostratzen duten ikerketak ere badira (Donio, 2017)²⁸. Azkenik, behin alargunduta, emakumeek berriz ezkontzeko aukera gutxiago dituzte gizonek baino. Izan ere, emakumeak autonomoagoak eta independenteagoak dira etxean bakarrik bizi zeari aurre egiteko, esparru pribatu hori haien jardueragunea izan baita bizi osoan, kasu askotan behintzat. Genero-rolen banaketa tradizionalaren ondorioz,

²⁸ Ibid. 26

gizonek emakumeekiko mendekotasun handia dute etxeko lanei dagokienez; hortaz, oso gizon gutxi uste dute autonomiaz bizitzeko gai direnik eta aukera gehiago dago beste bikotekide bat bilatu eta berriro ere ezkontzen saiatu daitezzen (Del Barrio, Mayoral eta Sancho, 2015).

Generoari lotuta ematen diren desberdintasun hauek adinekoen bakardade egoeren atzean askotan emakumezkoa den errealitate bat ezkutatzea eragiten du. Horrela, Urretxuren kasuan, bakarrik bizi diren pertsonen bi heren baino gehiago emakumezkoak dira (%67,1), gizonek soilik %32,9a osatzen duten bitartean. Dena den, sexu bakoitzeko pertsonen presentzia nabarmen aldatzen da adin-tartearen arabera. Horrela, bakarrik bizi diren 65 eta 69 urte bitarteko pertsonen artean kopuru hauek alderantzikatu egiten dira eta gizonek osatzen dute gehiengoa (%65,6a eta 82 pertsona), emakumeekin konparatuta (%34,4a eta 43 pertsona). 80 urte baino gehiago dutenen artean berriz, emakumeak dira nagusi eta hauek bakarrik bizi diren pertsonen %80a edo %90a bitarte osatzen dute, adin-tartearen arabera.

Hurrengo atalean azalduko denez, sexuaren araberako bereizketa hau kontutan hartzea ezinbestekoa da adineko pertsonen bakardade egoeren aurrean esku hartze zehatzak pentsatu eta diseinatzeko orduan. Azken batean, genero heziketak eta generoaren araberako bereizketak oraindik ere pertsonen subjektibotasunean eta haien bizitza aukeretan izugarritzko eragina badu, are gehiago gertatzen da hau adineko pertsonen kasuan. Horregatik, zein adin-tarteetan eta zer nolako kopuruetan kokatzen dira gizon eta emakumeak Urretxun bakarrik bizi diren adineko pertsonen osatutako populazioaren baitan, nahitaez kontutan izan beharreko aldagai bat da.

Emakumeen kasuan, adibidez, kopuru handienak 80 eta 84 urte bitarte dutenen artean ematen dira, non bakarrik bizi diren 99 emakume daude; bakarrik bizi direnen %25,6a, alegia. Gizonezkoen artean, berriz, kopuru handienak 65 eta 69 urte bitarte duten pertsonen artean ikusi ahal ditugu: adin-tarte honetan bakarrik bizi direnen %43,2a kokatzen dira, hau da, 82 pertsona. Oro har, eduki ahal dituzten zaugarritasun egoerengatik pena merezi du 90 urte baino gehiago duten pertsona kopuruari erreparatzea. Adin tarte honetan, 63 emakume eta 14 gizon daudela erakusten dute datuek, hau da, guztira, 77 pertsona, hauetako %81,8a emakumeak eta %18,2a gizonak izanik.

Urretxun aurkitzen ditugun datu hauek EAEn ematen direnekin alderatu ez gero, sexu bakoitzeko pertsonen ehunekoak eta hauek adin-tartearen arabera banatzeko moduak nahiko antzekoak direla ikusi daiteke. Horrela, EAEn egindako ikerketaren arabera, bakarrik bizi diren pertsonen herena gizonezkoa litzateke (%33,5) eta beste bi herenak berriz, emakumezkoak (%66,5). 65 eta 79 urte dutenen artean portzentaje hauek nolabait mantentzen diren arren – %34,9 gizonezkoak dira eta %65 emakumezkoak –, 80 urtetik gorakoan artean Urretxun ematen den feminizazio bera ematen dela antzematen da eta gizonezkoak %21,8a bilakatzen diren bitartean, emakumeak %78,1a izatera arte igotzen dute haien presentzia (Del Barrio, Mayoral eta Sancho, 2015; 55 orr.).

Datu hauek erakusten duten bezala, generoa eta adina dira adinekoen artean bakarrik bizitzeko aukera gehiago edo gutxiago izatea baldintzatzen duten ezaugarri soziodemografiko nagusiak. Dena den, hurrengo ataletan bi aldagai hauei lotuta zaugarritasun egoerak handitu ditzaketen beste faktore batzuk aztertuko dira. Baina analisi horri heldu baino lehen, hurrengo

atalean Urretxuren kasuan adineko pertsonen banaketa eta kokapen espaziala zein den aztertuko dugu.

Urretxun bakarrik bizi diren adineko pertsonen banaketa espaziala

Urretxun adineko pertsonak bizi dituzten bakardade egoerak aztertu eta ezagutzeko orduan, bada esku hartze egokiak definitu ahal izateko kontutan edukitzea ezinbestekoa den faktore bat: pertsona hauen kokapena edo banaketa espaziala. Urretxu herri txiki bat izanik, badira gertuko eremutik eragiteko eta egoera hauei aurre egiteko aukerak, baina horretarako argi eduki behar da herriko zein toki edo auzoetan kokatzen dira bereziki bakarrik bizi diren adineko pertsonak.

Baita ere norberaren bizi tokiak dituen ezaugarrien arabera (isolamendu geografikoa, garraio-bide falta edo malden presentzia, adibidez) beharrak edo oztopoak aldatu daitezkeelako. Azkenik, herriko auzo eta gune desberdinetan kokatzen den populazioaren ezaugarri sozio demografikoak desberdinak izateak ere, bakarrik bizi diren adineko pertsonen bizi baldintzetan eragingo duelako.

Horregatik, erronka honi aurre egiteko, errolda datuek pertsonak espazialki kokatzeko ematen dituen aukerak baliatu ditugu eta Urretxun bakarrik bizi diren adineko pertsonen mapa desberdinak osatu ditugu.

Atal metodologikoan azaltzen den moduan, herriaren banaketa espazial hau egiteko herriaren egunerokotasunean, oro har, erabiltzen diren hainbat kategoria erabili dira. Horren arabera, 10 gune desberdinetan banatu da Urretxuko herria:


- Alde zaharra.
- Aparicio.
- Barrenkale - San Martin.
- Basagasti-Lilibaso-Sorginzulo.
- Elizalde-Gurutze.
- Erdialdea.
- Ipeñarrieta –pagoeta.
- Landa eremua.
- Mundo mejor.
- Santa Barbara.

Herriko gune hauen deskribapen zehatzago bat izateko eta gune bakoitzaren ezaugarri sozial eta fisiko orokorrak zeintzuk diren jakiteko, jo ERANSKINA 1 atalera, dokumentu honen amaieran (XX or.).

Urretxun bakarrik bizi diren adineko pertsonen egoera ikuspegi espazial batetik aztertzen denean, bakarrik bizi diren adineko hamar pertsonetatik lau baino gehiago gune bakar batean bizi direla antzematen da (%43,5). Zehazki, herriko Erdialdean, non egoera honetan dauden 251 pertsona bizi dira. Jende gehien bizi den hurrengo gunea Ipeñarrieta-Pagoeta litzateke, non bakarrik bizi diren adineko 91 pertsona daude, hau da, guztien %15,8a. Jarraian, oso egoera berdintsuan dauden beste bi gune topatzen ditugu: Alde Zaharra eta Barrenkale-San Martin; lehenengoan, bakarrik bizi diren adineko 84 pertsona bizi dira (totalaren %14,6a) eta bigarrenean 80 (totalaren %13,9). Beraz, datu hauek erakusten duten moduan, Urretxun bakarrik bizi den adineko populazioaren %87,7a lau guneetan soilik bizi da, beste sei guneetan populazio honen %12,3a soilik bizi delarik (guztira 71 pertsona).

Jarraian azaltzen den mapak gune hauen kokapena zein den erakusten du eta herrian bakarrik bizi diren adineko pertsona gehienak non bizi diren modu grafiko batean irudikatzea ahalbidetzen du.

URRETXUKO GUNEETAN BAKARRIK BIZI DIREN 65 URTETIK GORAKO PERTSONA KOPURUA. 2018.



1. Mapa: Urretxuko gune desberdinak bakarrik bizi den 65 urtetik gorako pertsona kopuruaren arabera.
2018ko urtarrilaren 1eko datuak.
Iturria: Biztanleen Udal Errolda. Urretxuko Udala.
Egilea: Hiritik At Kooperatiba

Adineko pertsonen bizi kalitatearen ikuspegitik inportanteak diren bizi eremuaren ezaugarriei dagokienez, nabarmentzekoa da Alde Zaharrean dauden etxe gehienak zaharrak eta berriztatu gabekak direla, adibidez. Horrek, igogailua ez izatea dakar gehienetan eta adineko

pertsonentzako isolamendu arrisku handia dakar horrek. Etxetik ez ateratzea eta norberaren autonomian gainbehera handiak sortu ditzakeen faktore bat da hau. Erdialdean dauden etxeetan berriz, egoera anitzagoa izanik, badira, ordea, etxe zaharrak eta igogailu gabekoak. Ipeñarrieta-Pagoeta eta Barrenkale-San Martin gunetan berriz, etxeak berriagoak dira eta kasu gehienetan igogailua izan ohi dute.

Baina etxeen egoerez aparte, oso garrantzitsua den beste aldagai bat espazio publiko beraren irisgarritasuna da. Zentzu honetan, bakarrik bizi diren adineko pertsona gehien dituzten gunek nahiko lur lauean kokatzen dira eta ez dago malda edo aldapa handirik bertan. Dena den, adin aurreratuetan distantzia eta desnibel txikiak ere oztopo izan daitezkeela kontutan izan behar da eta, zentzu honetan, komenigarria litzateke adineko pertsona gehien bizi diren auzoetan irisgarritasun ikuspegitik analisiak egin eta beharrezko moldaketak edo egokitzapenak egitea.

Azkenik, inportantea den beste aldagai bat eguneroko zerbitzuen gertutasuna edo berataria iritsi ahal izateko garraio bide egokiak izatea da. Zentzu honetan, Erdialdean eta Ipeñarrieta-Pagoetan zerbitzu eta komertzio asko dagoela antzematen da. Ez hain beste ordea, herriko Alde Zaharrean, non lehenago zerbitzu eta komertzio gehiago zegoen, baina egun batez ere tabernak kokatzen dira eta zerbitzu asko urrun gelditzen dira bertako biztanleentzat. Barrenkale-San Martin gunean, berriz, ez dago komertzio edo zerbitzurik, nahiz eta Erdialdetik nahiko gertu dagoen.

Bestalde, gune bakoitzean kokatzen den pertsona kopurutik harago, interesgarria da ere hauen ezaugarri sozio demografikoei erreparatzea. Adinari dagokionez, adibidez, bakarrik bizi diren adineko populazio zaharkituenak Santa Barbara, Basagasti-Lilibaso-Sorginzulo eta Aparicio gunetan daude. Bertan bakarrik bizi diren pertsonen batez besteko adina 81,1 eta 80,1 urte bitarte kokatzen da. Gune "gaztetuenak" berriz, Elizalde-Gurutze, Alde Zaharra, Landa Eremua eta Ipeñarrieta-Pagoeta gunek lirateke. Bertan, bakarrik bizi diren adineko pertsonen batez besteko adina 76,8 eta 77,8 urte bitarte kokatzen da eta. Dena den, datu hauek interpretatzeko orduan garrantzitsua da beste hainbat adierazle kuantitatibo ere kontutan hartzea: hala nola, gune bakoitzean bizi den populazioaren adinaren desbiderazioa (σ) edo banaketaren baitako balore maximo eta minimoak. Hurrengo taulan datu hauek jasotzen dira lasaitasunez aztertu ahal izateko:

URRETXUN BAKARRIK BIZI DIREN 65 URTETIK GORAKO PERTSONEN ADINAREN BATEZ BESTEKOA ETA ADINARI LOTUTAKO BESTE ADIERAZLEAK, GUNEAREN ARABERA. 2018.

	Bakarrik bizi diren adineko pertsona kopurua	Adinaren batez bestekoa	Balore minimoa	Balore maximoa	Desbiderazioa (σ)
GUNEA					
SANTA BARBARA	22	81,1	93	66	8,1
BASAGASTI-LILIBASO-SORGINZULO	12	80,8	91	66	8,8
APARICIO	10	80,1	93	67	9,7
MUNDO MEJOR	9	78,7	92	67	7,7
ERDIALDEA	251	78,6	99	66	9,0
BARRENKALE -SAN MARTIN	80	78,2	96	66	8,6
IPEÑARRIETA -PAGOETA	91	77,8	96	66	8,4
LANDA EREMUA	12	77,7	94	67	8,1
ALDE ZAHARRA	84	77,4	97	66	7,8
ELIZALDE-GURUTZE	6	76,8	82	66	5,2
GUZTIRA	577	78,4	99	66	8,6

4. Taula: Urretxun bakarrik bizi diren 65 urtetik gorako pertsonen adinaren batez bestekoa eta adinari lotutako beste adierazle batzuk, gunearen arabera.


2018ko urtarrilak 1eko datuak.

Iturria: Biztanleen Udal Errolda. Urretxuko Udala.

Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Dena den, batzuetan orokortasunak zehaztasunak baino gehiago laguntzen duenez, hurrengo mapan gune bakoitzean dauden 80 urtetik gorako eta beherako pertsona kopurua jasotzen da. Datu hau inportantea izan daiteke zaugarritasun handiagoko egoeran egin daitezkeen adineko pertsonak bakarrik bizitzen dituzten guneak identifikatzeko orduan. Azken finean, ikerketa desberdinen arabera, gorputzaren gainbehera pertsona askorengan 80 eta 85 urteren bitartean gauzatzen da nagusiki. Horregatik, adin tarte honetan eta bertatik gora dauden pertsonen arreta edo jarraipen berezi bat egitea komeni da eta, hortaz, pertsona hauek identifikatuak edukitzea garrantzitsua da.

URRETXUN BAKARRIK BIZI DIREN 65 URTETIK GORAKO PERTSONAK, GUNEAREN ETA ADIN TARTEAREN ARABERA. 2018.



2. Mapa: Urretxun bakarrik bizi diren 65 urtetik gorako pertsonak, gunearen eta adin tartearen arabera.

2018ko urtarrilaren 1eko datuak.

Iturria: Biztanleen Udal Errolda. Urretxuko Udala.

Egilea: Hiritik At Kooperatiba.

Azkenik, eta arrazoi berdinegatik, 90 urte baino gehiagoko pertsonak non kokatzen diren ezagutzea ere komeni da. Datu horiek aztertzerakoan, adin tarte honetako pertsonen banaketa espaziala ez dela beste adinetako pertsonenengandik bereizten antzematen da.

Horrela, 90 urtetik gorako pertsonen erdia baino gehiago Erdialdean bizi da (%54,5, 42 pertsona), %13a (10 pertsona) Ipeñarrieta-Pagoetan, %10,4a (8 pertsona) Barrenkale-San Martin gunean eta %7,8a (6 pertsona) Alde Zaharrean. Beste gune guztietan, adin tarte honetan kokatzen diren 1 eta 4 pertsona soilik bizi dira, Elizalde-Gurutze gunean ez ezik, non ez dago adin tarte honetako pertsonarik bizitzen.

URRETXUN BAKARRIK BIZI DIREN 90 URTETIK GORAKO PERTSONAK, BIZI DIREN GUNEAREN ARABERA. 2018.

GUNEA	N	%
ERDIALDEA	42	54,5
IPEÑARRIETA -PAGOETA	10	13,0
BARRENKALE -SAN MARTIN	8	10,4
ALDE ZAHARRA	6	7,8
BASAGASTI-LILIBASO-SORGINZULO	4	5,2
SANTA BARBARA	3	3,9
APARICIO	2	2,6
LANDA EREMUA	1	1,3
MUNDO MEJOR	1	1,3
ELIZALDE-GURUTZE	0	0
Total general	77	100


XX. Taula: Urretxun bakarrik bizi diren 90 urtetik gorako pertsonak, bizi diren gunearen arabera. 2018ko urtarrilak 1eko datuak. Iturria: Biztanleen Udal Errolda. Urretxuko Udala. Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Azkenik, generoari dagokionez, gune bakoitzean dagoen feminizazio tasa ezagutzea ere interesgarria da. Hasieratik aipatu den bezala Urretxun bakarrik bizi diren pertsonen %67,1a emakumeak dira. Horrek, gune guztietan emakume kopuruak gizonezkoena gainditzea eragiten du, baina badira, dena den, guneen artean desberdintasun handiak (3. Mapa).

Horrela, gune feminizatuena Santa Barbara litzateke, non bakarrik bizi diren adineko pertsonen %86,4a emakumeak dira (19 emakume) eta soilik %13,6a gizonezkoak (3 gizon). Jarraian, Mundo Mejor eta Alde Zaharra kokatzen dira, non feminizazio tasa %77,8 eta %73,8 den, hurrenez hurren. Gizonezko gehien duten guneen artean, berriz, Landa Eremua, Aparicio eta Barrenkale-San Martin guneak topatzen ditugu. Bertan, gizonezkoak bakarrik bizi diren adineko pertsonen %41,7, %40 eta %37,5a osatzen dute, hurrenez hurren. Dena den, kontutan eduki behar da lehenengo bietan bakarrik bizi den adineko pertsonen kopurua nahiko txikia dela: 12 pertsona Landa Eremuan eta 10 pertsona Aparicion. Horrek, alde batetik, ehuneko hauen adierazgarritasuna murrizten du eta, bestetik, gune horietan adineko pertsonen genero edo sexuaren araberako esku hartze espezifiko bat egiteko aukeraren abantailak murrizten ditu ere bai.

Zentzu honetan, bakarrik bizi diren adineko pertsona gehien bizi diren gunetan feminizazio tasak %62-65 bitartean kokatzen dira – %62,5 Barrenkale-San Martin, %65,3 Erdialdea eta %65,9 Ipeñarrieta-Pagoeta –, Alde Zaharra, hauen artean, salbuespena delarik (%73,8).

URRETXUN BAKARRIK BIZI DIREN 65 URTETIK GORAKO PERTSONAK, BIZI DIREN GUNEAREN ETA SEXUAREN ARABERA. 2018.



3. Mapa: Urretxun bakarrik bizi diren 65 urtetik gorako pertsonak, bizi diren gunearen eta sexuaren arabera.

2018ko urtarrilaren 1eko datuak.

Iturria: Biztanleen Udal Errolda. Urretxuko Udala.

Egilea: Hiritik At Kooperatiba.

Atal honetan, Urretxun bakarrik bizi diren adineko pertsonen kokapen edo banaketa espaziala zein den aztertu dugu. Jarraian, bakardade egoeren aurrean eta horiei aurre egiteko pertsona batek eduki dituen gaitasun eta baliabideak baldintzatzen dituzten zaugarritasun faktore desberdinak aztertuko dugu.

Bakarrik bizitzeari lotutako zaugarritasun faktoreak

Bakardadea esperientzia eta bizipen gisa ulertzen badugu, eta ez bakarrik bizikidetza eredu bat bezala, aldagai eta ikuspegi anitzez inguratua dagoen gertaera bat bezala agertuko zaigu. Horregatik, bakardade egoeren inguruan dauden faktore guzti hauek kontutan edukitzea beharrezkoa da bakarrik bizi diren adineko pertsonak bizi duten errealitatea ulertu eta deskribatu ahal izateko.

Hurrengo orrialdeetan bakardade egoeren aurrean zaugarritasuna handitu edo murriztu dezaketen hainbat faktore aztertzen dira. Posible denean, Urretxuko populazioari dagozkion datuak erabili dira, baina beste kasu batzuetan ez dago herrian bizi diren adineko pertsonen inguruko daturik eta, beraz, Gipuzkoan, Euskal Autonomia Erkidegoan, Espainiar Estatuan edo

gertuko beste herrialdeetan burutu diren ikerketa eta diagnostikoetan oinarritutako datuak erabili behar izan ditugu. Honek, Urretxuren kasuan egon daitezkeen egoeretara hurbiltzea ahalbidetzen digu, behintzat.

Jatorria

Jatorri anitz batekoa izateak bakardade egoeren aurrean zaugarritasuna areagotzen duela frogatu dute hainbat ikerketek (Hawkley et al., 2008, Donio-ren lanean, 2017)²⁹. Arrazoi nagusia sare familiarren ahultasun edo urruntasuna izaten da, baina badira ere harrerako herri edo herrialdean etorkinek bizi izan dituzten gizarteratze prozesuen kalitatea eta egonkortasunari lotutako faktoreak ere bai.

Urretxun bakarrik bizi diren pertsonen jatorria aztertzen denean, ez dirudi Urretxun beste jatorri batekoa izateak zahartzaroan bakarrik bizitzeko arrisku handiagoa dakarrenik. Urretxun bizi diren 65 urtetik gorako hamar biztanleen erdia inguru (%46,2) Espainiar estatuko beste autonomia erkidegoetan, bi inguru Urretxun bertan jaio dira (%22) eta hiru Gipuzkoako beste herri batzuetatik datoz (%29,4). Azkenik, EAEko beste lurraldeetan jaioak %2,4a bakarrik dira.

Bakarrik bizi diren adineko pertsonen artean kopuru hauek nahiko antzekoak dira, nahiz eta EAEko beste lurraldeetan jaiotakoak gehiago diren kasu honetan (%8,1, 47 pertsona) eta Espainiar estatuko beste erkidego batzuetan jaioak berriz gutxiago (%38,3, 221 pertsona). Aniztasun kulturalaren kudeaketari dagokionez, beste herrialde batean jaiotako pertsonak 9 bakarrik dira. Pertsona hauen jatorrizko herrialdeei dagokionez, ez da jatorri nagusi bat identifikatzen eta kontinente desberdinetako pertsonak daude.

Gainera, datu hauek genero ikuspegi batetik aztertzen direnean, 65 urtetik gorako gizon eta emakumeen jatorrien artean desberdintasunik ez dagoela antzematen da, ez beste norbaitekin bizi diren adineko pertsonen artean, ezta bakarrik bizi diren artean ere ez.

URRETXUN 65 URTETIK GORA DUTEN BIZTANLEAK, JATORRIA ETA ELKARBIZITZA EGOERAREN ARABERA. 2018.

	≥ 65 urte populazio osoa		≥ 65 urte bakarrik bizi diren pertsonak	
	N	%	N	%
JATORRIA				
Urretxu	342	22,0	138	23,9
Gipuzkoa	458	29,4	163	28,2
EAE	38	2,4	47	8,1
Espainiar Estatua	719*	46,2*	221	38,3
Beste herrialde batekoa	--	--	8	1,4
Guztira	1.557	100	577	100

(*) Urretxuko udal errolda zerbitzuak argitaratzen dituen datu ofizialek ez dute EAE-tik kanpo jaio diren pertsonen jatorria bereizten. Horregatik, kasu honetan pertsona guzti horiek Espainiar Estatuko beste erkidegoetatik datozela suposatzen da, talde hori

²⁹ Ibid. 26

populazioaren baitan ugariena delako, baina egongo dira bertan beste herrialde batetik datozen pertsonak ere.

5. Taula: Urretxun 65 urtetik gora duten biztanleak, jatorria eta elkarbizitza egoeraren arabera. 2018ko urtarrilaren 1eko datuak.
Iturria: Biztanleen Udal Errolda. Urretxuko Udala.
Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Egoera ekonomikoa

Pobrezia eta prekariedade ekonomikoko egoerek pertsonen bizi kalitatea murriztu eta norberaren bizitzarekiko gogobetetze maila urratzen dute (Jong Gierveld y van Tilburg, 2010, Donio-ren lanean, 2017)³⁰. Ikerketa desberdinen arabera, errenta maila txikiagoa duten adineko pertsonak babes eta harreman sare mugatuagoak dituzte, ekintza kultural eta sozialetan parte hartzeko ahalmen txikiagoa eta zaintza eta laguntza zerbitzu pribatuak eskuratzeko aukera gutxiago (Victor et al., 2000; Hacıhasanoglu et al., 2012; Neri y Vieira, 2013; Piquart y Sørensen, 2001b; 2003, Donio-ren lanean, 2017)³¹. Faktore guzti hauek bakardade sentimenduak agertzea errazten du eta pertsonaren isolamendu soziala areagotzen dute (Donio, 2017)³². Horregatik, adineko pertsonen egoera ekonomikoa diagnostiko honetan aztertu beharreko alderdi bat da ere.

“Gipuzkoako pobrezia eta gizarte bazterketari buruzko 3. Inkesta”-ren arabera, 2018 urtean 65 urtetik gorako pertsonak nagusi ziren etxeetan %12,6a pobrezia erlatibo egoera batean bizi zen eta %1,9a pobrezia larria³³. Eskasia material larri egoera batean zeudenak berriz %3,5a ziren. Datu hauek Urretxuko populazioari aplikatu ez gero, herrian bizi diren adineko 196 pertsona inguru pobrezia erlatibo egoera batean egongo liriateke, 30 pobrezia egoera larri batean eta 54 eskasia material larria pairatuko lukete. Bakarrik bizi diren pertsonen artean berriz, kopuru hauek 72, 10 eta 20 pertsona liriateke, hurrenez hurren.

Datu hauek beste adin tarteetako pertsonak nagusi diren etxeetan ematen direnekin konparatu ez gero, gaur egun, Gipuzkoan, adineko pertsonen egoera ekonomikoa gizarteko beste talde batzuen baina hobea dela erakusten dute. Aldi berean, konparatiboki hobeto egoteak norberaren ongizate ekonomikoa bermatzen ez duenez, komenigarria da datu hauek zifra absolutu batzuekin ere konparatzea.

³⁰ Ibid. 26

³¹ Ibid. 26

³² Ibid. 26

³³ Adierazle hauek Gipuzkoako etxeetan dagoen batez besteko errenta mailarekin alderatuta kopuru horren %60 (*pobrezia erlatiboa*) eta %40-tik (*pobrezia larria*) beherako diru-sarrerak eskuratzen dituzten etxe kopurua zenbatzen dute, hurrenez hurren.

POBREZIA ETA ESKASIA MATERIALAREN ADIERAZLE NAGUSIAK, BIZIKIDETZA UNITATEKO PERTSONA NAGUSIAREN ADINAREN ARABERA. GIPUZKOA 2018.

Bizikidetzaren unitateko pertsona nagusiaren adina	Bizikidetzaren unitate kopurua (%)				
	Diruzko pobrezia			Eskasia material larria	Guztira
	Pobrezia larria	Pobrezia erlatiboa	Pobrezia erlatibo eza		
< 45	8,8	23,8	76,2	12,1	28,5
45-65	5,1	14,0	86,0	5,6	44,3
> 65 urtetik gora	1,9	12,6	87,4	3,5	27,2
Guztira	5,3	16,4	83,6	6,9	100,0

6. Taula: Pobrezia eta eskasia materialaren adierazle nagusiak, bizikidetzaren unitateko pertsona nagusiaren adinaren arabera.


Iturria: Gipuzkoako pobrezia eta gizarte bazterketari buruzko 3. Inkesta. 2018. Gipuzkoako Foru Aldundia eta SIIS- Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa.

Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Kontraste moduan baliagarriak dira EUSTAT-ek eskaintzen dituen *Pertsona eta Familia-Errentaren* estatistikako datuak. Iturri honen arabera, 2016 urtean EAEn 65 eta 69 urte bitarte zuten gizonen eskurako errenta pertsonala 26.328 eurokoa zen eta 95 urte baino gehiago zutenena berriz, 13.209 eurokoa. Emakumeen kasuan berriz, desberdintasunak topatzen baditugu ere hauek askoz txikiagoak dira eta horrela 65 eta 69 urte bitarteko emakumeen artean batez besteko eskurako errenta 12.470 euro diren bitartean 95 urte baino gehiago duten emakumeen artean 9.664 euro dira.

Datu hauek agerian usten dutenez, gizon eta emakumeen arteko eskurako errenta pertsonalean arrakala handia dago, emakumeak, oro har, zaugarriagoak bilakatuz ikuspegi ekonomiko batetik. Baina datu hauek gutxiagotan ikustarazten den arrakala bat ere erakusten dute, adinari edo, hobe esanda, pertsonen belaunaldiari dagokiona. Bai gizon zein emakumeen artean, adinak gora egin ahala antzematen diren desberdintasun ekonomikoak, XX. mendeko 50. hamarkadatik aurrera lan munduan eman ziren lorpen sozialek eragin dituzte eta generazio batetik bestera lan baldintza eta soldatetan eman zen hobekuntzaren isla dira. Argi eta garbi erakusten dute datuek nola emakumeak hobekuntza horietatik baztertuak izan diren kasu gehienetan, lan informalak eta ugalketa lanak burutzerak alboratuak izanik. Horrek, gizarte segurantzaren eta bestelako babes ekonomikorako sistemak eskaintzen dituzten eskubideetatik kanpo utzi dituzte emakumeak eta, gaur egun, pobrezia eta prekaritate ekonomikoen aurrean oso zaugarriak bilakatzen ditu horrek adineko emakume asko.

EAEEn 65 URTETIK GORA DUTEN BIZTANLEEN BATEZ BESTEKO ESKURAKO ERRENTA PERTSONALA, SEXUA ETA ADINAREN ARABERA. 2016.



7. Taula: EAEEn 65 urtetik gora duten biztanleen batez besteko eskurako errenta pertsonala, sexua eta adinaren arabera.

2016ko datuak.

Iturria: EUSTAT. Pertsona eta Familia-Errentaren estatistika.

Egilea: Farapi Koop. Elkarte

Urretxuren kasuan, adinaren arabera sailkatutako biztanleen datu ekonomikorik ez badago ere, badira herrian pobrezia edo prekarietate ekonomiko egoeran dauden adineko pertsonen jasotzen duten laguntza ezagutza ahalbidetzen duten hainbat datu.

Alde batetik, 2019ko Urtarrileko datuen arabera, Urretxun 65 urtetik gora zuten 24 pertsonen (17 emakume eta 7 gizon) Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) kobratzen zuten. Hau da, 65 urtetik gorako populazioaren %1,54a eta adin tarte honetako emakumeen %1,93a. Adineko pertsonak Urretxun diru laguntza hau kobratzen duten pertsonen %22a osatzen dute, guztira, herria, 109 pertsonen kobratzen baitute (42 gizon eta 67 emakume).

Bestetik, badira ere behar ekonomiko puntualei aurre egiteko gizarte zerbitzuek eskaintzen dituzten Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak (GLL). Diru laguntza hauei dagokienez, 2018an Urretxun 61 bizikidetzaren unitateek jaso zuten horrelako laguntza ekonomiko bat. Horietatik, %41a 65 urte baino gehiagoko pertsona batek burutzen zuen etxebizitza batera bideratu ziren (25 bizikidetzaren unitate). Kasu gehienetan gainera, pertsona hau bakarrik bizi zen (20 bizikidetzaren unitate). Zehazki, Urretxun bakarrik bizi diren adineko pertsonen %3,5ak eskuratu zuen 2018 urtean Gizarte-Larrialdietarako Laguntza bat.

Diru-laguntza hauek eskatzeko arrazoen artean, 65 urtetik gorako pertsona gehienek etxe hileko gastuei (ura, gasa eta argia) aurre egiteko eskatu zutela erakusten dute datuek (20 pertsona), nahiz eta batzuek ere etxebizitzaren ordainketa zuzenari (alokairua edo hipoteka) aurre egiteko baliatu zuten (7 pertsona). Pertsona hauen ezaugarriak dagokienez, adinaren arabera desberdintasun handirik ez dagoela antzematen da: 14 pertsonen 65 eta 79 urte

bitarte zuten eta 11 pertsonen 80 urte baino gehiago. Generoari dagokionez, berriz, emakumeak nagusi direla agerian da.

Osasuna

Norberaren osasunaren balorazio subjektiboa, hala nola pertsona batek duen autonomia funtzional objektiboa aldagai klabeak dira adineko pertsonen hautatutako edo ez hautatutako bakardade egoeren aurrean aritzeko duten gaitasuna zehazteko orduan. Gainera, hainbat ikerketen arabera, osasun egoera txar bat edukitzeak isolamendu sozial handiagoa eta bakardade sentimenduak edukitzeko arrisku handiagoa dakar, besteak beste (Puga, 2019).

Osasuna baina, ertz anitzeko errealitate konplexu bat da eta oreka biologiko, pertsonal eta soziala barnebilduz ulertu beharra dago, ez bakarrik gorputzari lotutako dimentsio fisikoak kontutan hartuta. Ikuspegi honi jarraituz, atal honetan Gipuzkoan eta, ahal denean Urretxun, bizi den adineko populazioaren osasun fisiko zein psikologikoa aztertuko dugu.

Datuei dagokionez, 2013an egindako Euskal Osasun Inkestaren arabera, Gipuzkoan bizi diren eta 65 urtetik gora duten pertsona gehienek bere osasun egoera ona edo oso ona dela uste dute. Adinak gora egin ahala, norberaren osasuna modu kaxkarrago batean hautematen bada ere, 75 urte baino gehiago dutenen artean, gizonen %12,4ak eta emakumeen %16,6ak bakarrik uste du bere osasun egoera txarra edo oso txarra dela. Datu hauek gure gizartean dagoen bizi-itxaropena altua dela eta zahartzaroan ematen den bizi-kalitatea ere kasu askotan ona dela erakusten dute.

GIPUZKOAN 65 URTETIK GORAKO BIZTANLEEK NORBERAREN OSASUN OROKORRAREKIKO DUTEN PERTZEPTZIOA, ADINA ETA SEXUAREN ARABERA. 2013.

	Oso ona edo ona	Hala-holakoa	Txarra edo oso txarra	Guztira
Emakumeak				
65-74	68,8	26,9	4,3	100,0
≥ 75	47,6	35,7	16,6	100,0
Gizonak				
65-74	71,8	22,7	5,5	100,0
≥ 75	53,3	34,2	12,4	100,0

8. Taula: Gipuzkoan 65 urtetik gorako biztanleek norberaren osasun orokorrekiko duten pertzepzioa, adina eta sexuaren arabera.

2013ko datuak.

Iturria: Euskal Osasun Inkesta. Eusko Jaurlaritzak.

Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Bakarrik bizi diren adineko pertsonen artean, norberaren osasunarekiko zer nolako pertzepzioa dagoen ezagutzeko datu iturri honek ez du daturik eskaintzen. Gaur egun, Euskal Osasun Inkestak ez du oraindik bizikidetza unitate motaren arabera daturik eskaintzen eta. Baina *Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen bizi-baldintzei buruzko ikerketa-k* bai, zentzu

honetan egon daitekeen arrakalari buruzko informazioa ematen digu. Lan honetan lortutako emaitzen arabera, bere etxean bakarrik bizi ziren adineko pertsonen artean erdiak baino gutxiago adierazten zuen bere osasun egoera ona edo oso ona zela (%48,1), bere bikotekidearekin bizi zirenen artean berriz %63,3ak hau adierazten zuen bitartean. Aldi berean, osasun txarra edo oso txarra zutenen ehunekoak bakarrik bizi ziren pertsonen artean (%12), bere bikotekidearekin bizi zirenen bikoiztu egiten zuen (%6) (Del Barrio, Mayoral eta Sancho, 2015). Dena den, datu hauek tentuz hartzekoak dira, bakarrik bizi diren pertsonen artean adin aurreratuagoak dituzten pertsona gehiago dago eta. Eta, beraz, posible da norberaren osasunaren pertzepzioan ez izatea horren beste pisu bizikidetzatza motak, baizik eta norberaren adinak eta bertatik eratorri ahal den gorputzaren gainbehera.

Adineko pertsonen autonomia eta mendekotasun egoerei lotuta, Euskal Osasun Inkestaren arabera, Gipuzkoan 75 urtetik gora duten pertsonen erdia baino gehiagok mugitzeko zailtasunak dituzte (%53,2), hamarretik lauk eguneroko jarduerak burutzeko ere zaila topatzen dute (% 40,4) eta lau pertsonetatik batek bere burua zaintzeko zailtasunak dituela adierazten du (%24,6). Gainera, oro har, emakumeen artean zenbateko hauek gizonen artean baino altuagoak dira, generoak osasunean eta bizi kalitatean duen eragina erakutsiz.

GIPUZKOAN 65 URTETIK GORAKO BIZTANLEEN OSASUN EGOERARI LOTUTAKO HAINBAT ADIERAZLE, ADINA ETA SEXUAREN ARABERA. 2013.

		Gizonak	Emakumeak	Guztira
Mugitzeko zailtasunak	65-74	28,8	28	28,2
	≥ 75	52,3	55,4	53,2
Eguneroko jarduerak burutzeko zailtasunak	65-74	12,2	17,9	15,2
	≥ 75	34,7	43,8	40,4
Nork bere burua zaintzeko zailtasunak	65-74	4,7	7,4	6,1
	≥ 75	18,1	28,3	24,6
Min-arazoaren prebalentzia	65-74	39,6	52,4	46,4
	≥ 75	58,2	64	61,9

9. Taula: Gipuzkoan 65 urtetik gorako biztanleen osasun egoerari lotutako hainbat adierazle, adina eta sexuaren arabera.

2013ko datuak.

Iturria: Euskal Osasun Inkesta. Eusko Jaurlaritzak.

Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Urretxun bizi den adineko populaziorako datu hauek topatzea ezinezkoa den arren, gizarte zerbitzuek Mendekotasun Legearen arabera (39/2006 Legea) burutzen duten Mendekotasunaren Balorazioa (MBB) hartu daiteke errealitate honetarako gerturapen gisa. Adierazle honen arabera, 2018an Urretxun bizi ziren adineko pertsonen %13,8a (215 pertsona) menpekotasun egoera batean zegoen, emakume kopurua (160 pertsona) gizonena (55 pertsona) baino nabarmen altuagoa izanik. Desberdintasun hau topatzea normala da,

emakumeen bizi iraupena gizonena baino altuagoa delako eta menpekotasun egoera gehienak gaur egun 80 edo 85 urtetik aurrera ematen direlako.

Hurrengo taulak oso modu argian erakusten duenez, adinak gora egin ahala menpekotasun egoerak geroz eta ohikoagoak bilakatzen dira adineko pertsonen artean. Urretxun, adibidez, 65 eta 79 urte bitarte dutenen %5,5a (54 pertsona) dago menpekotasun egoera batean, 80 urte baino gehiago dutenen artean berriz, %33,8a (161 pertsona) den bitartean.

UROLA GARAIAK MENDEKOTASUN BALORAZIOAN I-III GRADUKO PUNTUAZIOA DUTEN ADINEKO PERTSONEN KOPURUA ETA EHUNEKOAK. 2018.

ADINA	Urretxu		Zumarraga		Legazpi		Ezkio-Itsaso	
	N	%	N	%	N	%	N	%
65-79								
Emakumeak	40	7,7	73	8,9	60	8,5	3	8,3
Gizonak	14	3,1	35	5,0	40	6,1	3	6,5
Guztira	54	5,5	108	7,1	100	7,4	6	7,3
> 80								
Emakumeak	120	38,6	234	41,3	194	42,3	22	71,0
Gizonak	41	24,7	92	29,4	89	30,2	6	28,6
Guztira	161	33,8	326	37,1	283	37,5	28	53,9

10. Taula: Urola garaian mendekotasun balorazioan I-III gradu bitarteko puntuazioa lortu duten adineko pertsonak, adin tartearen arabera.
2018ko abenduko datuak.
Iturria: Behagi. Gipuzkoako Gizarte Behatokia.
Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Datu hauek bakarrik bizi diren adineko pertsonentzako soilik eskuratzen saiatu garen arren, gaur egun Gipuzkoako Foru Aldundiak datu hauek kudeatzeko duen sistemak ez du sailkapen hau modu sinple batean egitea ahalbidetzen. Beraz, errealitate honek bakarrik bizi diren adineko pertsonen artean zer nolako itxura izan dezakeen jakiteko, gerturapen estatistiko bat egitea besterik ez zaigu geratzen. Horrela, bakarrik bizi diren pertsonen artean mendekotasun egoeren prebalentzia berdina izango litzatekeela onartu ez gero, 65 eta 79 urte bitarteko 17 pertsona eta 80 urtetik gorako 90 pertsona egongo lirateke Urretxun bakarrik bizitzen mendekotasun egoera batean dauden bitartean.

Azkenik, goiko taulak erakusten duen bezala (10. Taula) Urretxun ematen diren zenbateko hauek eskualdeko beste herrienekin alderatu ez gero, oro har, Urretxun menpekotasun egoeren presentzia adinekoen artean txikiagoa dela antzematen da. Urola Garaia osoan 65 eta 79 urte bitarteko pertsonen %6,8a mendekotasun egoera batean dago eta 80 urtetik gorakoaren artean kopurua % 36,9 da.

Adineko pertsonen egoera eta bizi kalitateari erreferentzia egiterakoan alde batera utzi ohi den alderdietako bat osasun mentala eta, honen barruan, droga menpekotasun arazoak dira.

Osasunaren alderdi honi dagokionez, Euskal Osasun Inkestak 2013an Gipuzkoan bizi ziren 65 eta 74 urte bitarteko biztanleen %26,1ak antsietate eta depresio arazoak zituela erakusten du. Gainera, 75 urte baino gehiago zuten pertsonen artean zenbatekoa oraindik altuagoa zen (%32). Gainera, emakumeen artean arazo hau askoz hedatuagoa dagoela antzematen da eta 65 urtetik gorako emakume guztien herenak izango lituzke antsietate edo depresio sintomak, gizonen %18a (65 eta 74 urte bitarte dutenen artean) edo %25,1-arekin (75 urtetik gorakoeren artean) alderatuta.

Droga menpekotasun arazoak berriz, gizonen artean hedatuagoak daudela erakusten dute datuek. Batez ere, alkoholaren kontsumoari lotutakoak. Horrela, Gipuzkoan bizi diren 65 eta 74 urte bitarteko gizonen %30,9ak alkoholaren ondorioz osasun arazoak edukitzeko arrisku handia dute eta %7,1a alkoholikoak kontsideratu daitezke haien kontsumo maila kontutan hartuta. Emakumeen artean berriz, gehiegizko kontsumoa existitzen bada ere, hau askoz murriztuagoa da eta kopuruak %9,5 (65 eta 74 urte bitarteko emakumeen artean) eta %0,8 bitarte (75 urtetik gorakoeren artean) kokatzen dira beti ere.

GIPUZKOAN 65 URTETIK GORAKO BIZTANLEEN OSASUN MENTALA ETA DROGA MENPEKOTASUNARI LOTUTAKO HAINBAT ADIERAZLE, ADINA ETA SEXUAREN ARABERA. 2013.

		Gizonak	Emakumeak	Guztira
Antsietate eta depresio arazoak	65-74	18	33,3	26,1
	≥ 75	25,1	35,9	32
Azken hamabi hilabeteetan bere burua hiltzea pentsatu duten pertsonak	65-74	1,6	1,6	1,6
	≥ 75	0,0	1,2	0,8
Alkoholaren kontsumoaren ondorioz osasun arazoak izateko arrisku handia duten pertsonak	65-74	30,9	9,5	19,6
	≥ 75	16,4	4,7	8,9
Alkoholikoak izan daitezkeen pertsonak (CAGEren testa≥2)	65-74	7,1	0,8	3,8
	≥ 75	7	0,4	2,8

11. Taula: Gipuzkoan 65 urtetik gorako biztanleen osasun mentalari lotutako hainbat adierazle, adina eta sexuaren arabera.

2013ko datuak.

Iturria: Euskal Osasun Inkesta. Eusko Jaurlaritza.

Egilea: Farapi Koop. Elkarte

Babes sarea eta laguntza harremanak

Esan dugun bezala, zahartzaroan ematen diren hainbat gertaerek (jubilazioa, lagunen edo senitartekoen heriotza, seme-alaben emaztizapazioa...) adineko pertsonen sare sozialak eta harremanak gutxitzea dakar. Gainera, ikerketa ugariren arabera, bizitzan aurrera egin ahala, pertsonak haien harremanekiko hautakorragoak bilakatzen dira eta bere harreman kopurua murrizteko joera dute. Horrela, ohikoa izaten da adineko pertsonen harreman sarea gazteena baino txikiagoa izatea. Babes sarea berriz, hau da, harreman estuek osatzen dutena, bizitzan zehar joera egonkorrago bat mantentzen du eta ez dago gazte eta adinekoen artean horren besteko ezberdintasuna (Pinazo eta Donio, 2018)³⁴. Adineko pertsonen babes sareak sendoak eta egonkorak badira, pertsona horiek ez dute zertan bakarrik sentitu edo isolatuta egon behar, nahiz eta bakarrik bizi.

Urretxun bakarrik bizi den adineko populazioaren sare eta harremanak ezagutzeko iturri zuzenik ez dago. Urretxu Lagunkoia diagnostikoaren baitan 2016 urtean jaso zen informazioa da herrian dauden harreman sareen sendotasuna ezagutzeko iturri gertukoena. Horren arabera, diagnostiko horren baitan jaso ziren 194 galdetegiaren artean, %79,6ak erantzun zuen harreman handia edo dezente zuela bere familiarekin eta erdiak baino gehiago laguntza asko edo dezente jasotzen duela bere senideengandik (%59). Dena den, kontutan eduki behar da galdetegi hauen gehiengo ez zituela 65 urtetik gorako pertsona batek bete – jasotako galdetegiaren %22,7a bakarrik ziren adineko pertsona batek beteak – eta lagina ez zela herriko ezaugarri sozio demografikoaren isla. Horregatik, interesgarria da datu hauek beste iturri estatistiko batzuekin uztartzea.

Eusko Jaurlaritzak burutu zuen *Euskadiko 55 urte eta gehiagoko pertsonen bizi-baldintzei buruzko ikerketa*-ren arabera, 65 eta 79 urte bitarteko populazioaren %7,6a bakarrik bizi da EAE-n bere seme-alabengandik 26 km baino urrutiago eta 80 urte dutenen artean portzentaje hau oso antzekoa da ere (%7,4). Datu hauek Urretxun bakarrik bizi diren adineko populazioaren kasura estrapolatuko bagenitu, bakarrik bizi diren 24 eta 20 pertsona egongo lirateke egoera honetan, hurrenez hurren.

Gainera, adineko pertsonen erdia baino gehiago haien seme alabengandik oso gertu bizi dela erakusten dute datuek, oro har, kilometro bat baino gutxiagora. Kasu batzuetan, berriz, eraikin berdinean bizi ziren. Nabarmentzekoa da hain zuzen ere, kasu hauetan 65-79 adin tartean eta 80 urtetik gora kokatzen direnen artean ematen den desberdintasuna. Lehenengoaren artean %2,5a bakarrik bizi da bere seme-alaben eraikin berdinean; bigarrenen artean, berriz, portzentajea hirukoiztu egiten da (%7,8). Gainera, emakumeak, osasun txarra dutenak eta bere egunerokotasunean laguntza behar dutenak dira, batik bat, haien seme-alaben eraikin berean bizitzeko joera duten pertsonak.

Familiarekin mantentzen den harremanaren maiztasunari dagokionez, ikerketa bereko datuek 55 urte baino gehiagoko emakumeen erdia baino gehiago (%51,7) egunero duela bere seme-alabekin aurrez aurreko kontaktua diote; gizonen artean, berriz, portzentajea % 42,5 da.

³⁴ Ibid. 11

Adinari dagokionez, 65 eta 79 urte bitarte dutenen %51,5ak eta 80 urte baino gehiago dutenen %56,6ak ikusten ditu bere seme-alabak egunero eta egunero haiekin telefonoz hitz egiten dutenak edo mezu bidez komunikatzen direnak %57,4a eta %62,3a dira, hurrenez hurren.

Datu hauek, genero eta adinari dagokionez desberdintasun batzuk irudikatzen dituzte. Alde batetik, emakumeen kasuan ohikoagoa da familiarekin eguneroko harremana izatea, gizonen artean, berriz, lagunekin ematen da batez ere egunerokotasuneko harremana (%58,7). Familiaren esparru pribatua emakumeei dagokie bereziki eta etxetik kanpoko esparrua, berriz, gizonei. Adinari dagokionez, berriz, adinak gora egin ahala, aurrez aurreko kontaktuek nabarmen egiten dutela behera antzematen da eta ohikoagoa bilakatzen da telefonoz komunikatzea egunerokotasunean. Kontutan eduki behar da ere bai, 65 urtetik gorako pertsonen %10ak ez duela seme-alabarik. Urretxuren kasuan, beraz, 150 pertsona inguru lirateke.

Familian ematen diren harremanen kalitateari dagokionez, *Gipuzkoako pobrezia eta gizarte bazterketari buruzko 3. Inkestak* 65 urtetik gorako pertsona bat buru duten etxeetan, erdiak baino gehiagok dio bere etxean bizi diren senideekin harreman ona edo oso ona duela (%58,3), herena etxean bakarrik bizi da (% 33,4) eta %8,3ak bakarrik dio etxekoekin harreman txarra duela. Etxetik kanpo bizi diren senideekin berriz, %88,5ak harreman onak edo oso onak dituela adierazten du eta %11,5ak harremanak txarrak direla adierazten du.

Lagunekin ematen diren harremanei dagokienez, *“Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen bizi-baldintzei buruzko ikerketa”*-ren arabera, Euskadin 55 urte baino gehiago duten hamar pertsonetatik zortzik asteen behin ikusten dituzte haien lagunak (%81,3) eta egunero ikusten dituztenak erdia baino gehiago dira.

Dena den, adinak gora egin ahala, lagunekin izaten den harremanaren maiztasunak behera egiten du. Horrela, 65 eta 79 urte bitarte dutenen %61,8ak egunero ikusten ditu bere lagunak, baina 80 urte baino gehiago dutenen artean portzentajea %43,2 soilik da. Aldi berean, eta lehen ikusi den bezala, seme alabekin dagoen harremana estutzen doa adinak gora egin ahala eta adin aurreratuko pertsonen jarduera beren etxeko eta hurbileko esparrura mugatzeko joera du, horrek mantentzen dituen harremanen gutxitzea dakarrelarik.

Azkenik, familia eta lagunekin ematen diren konfiantza harremanetatik harago, inportantea da ere babes motarik ez duen adineko pertsonen errealitatea ezagutzea. Zentzu honetan, *Gipuzkoako pobrezia eta gizarte bazterketari buruzko 3. Inkesta-k*, 65 urte baino gehiagoko pertsona bat buru den etxeetan %6,6ak ez lukeela laguntza eskatzeko pertsonarik izango adierazten du. Egoera honen larritasuna kontutan hartuta zifra hau aintzat hartzekoa den bitartean, nabarmendu behar da beste adin tarte batzuekin alderatuta, 65 urtetik gorako bizikidetzak unitateak direla modu nabarmen batean laguntza gehien eskuratzen dutenak, bai sare formal, zein informaletatik; 45 eta 64 urteko pertsonen artean, adibidez, portzentajea %10,9-koa da eta 45 urtetik beherako artean berriz %16,6.

Aisialdia eta parte hartze soziala

Aisialdiko jarduerak bereziki garrantzitsuak dira adineko pertsonentzat; izan ere, enpleguari edo amatasun eta aitatasunari lotutako erantzukizunak murrizten doazen heinean, pertsonak aisialdirako geroz eta denbora gehiago dute eta denbora hori betetzeko aukeratzen diren jarduerak erreferentzia eta esanahi berriak ematen dizkiete pertsoneri eta haien bizitzei. Gainera, aisialdiko jardueren bidez bizitza sozial aktibo bat izatea funtsezkoa da mendekotasuna prebenitzeko, hala nola, gogobeteko zahartze bat izateko, bai kuantitatibo zein kualitatiboki. (EDE Fundazioa, 2013).

EAEn bizi diren 65 urtetik gorako biztanleek aisialdi jarduera desberdinekiko duten harremanari dagokionez, zahartzaroan zehar kirol jarduera bat egiten duten pertsonak nagusi dira, 55 urtetik gorako %80,1k egiten baitu kirolen bat asteen zehar eta %60,8k egunero egiten dute jarduera hori. Gainera, 65 eta 79 urte bitarte dutenen artean ematen da portzentajerik altuena (%67,3) eta 80 urtetik gorako artean zenbatekoa txikiagoa bada ere, gutxi gora behera pertsona hauen erdiak mantentzen du kirola egunero egiteko ohitura (%47,8).

Nabarmenezkoa da generoari lotuta ematen diren desberdintasunak. Hamar gizonetatik zazpi inguruk (%68,2) kirola egunero egiten dutela adierazten duten bitartean, emakumeen artean ohitura hori %54,8ak bakarrik mantentzen du. Interesgarria litzateke datu hau adinak gora egin ahala nola aldatzen den aztertzea, emakumeek kirol jardueretan parte hartzeko orduan topatzen dituzten zailtasunak non kokatzen diren hobeto ulertzeko. Zentzu honetan, kirolik egiten ez duten eta 55 eta 64 urte bitarte duten pertsonen denbora falta argudiatzen du arrazoi nagusi gisa (%60,9). Portzentaje honek berriz, nabarmen egiten du behera erretirorako adina gainditzen denean. Emakume askok jada pairatzen duten jardunaldi bikoitzak – etxean bere gain hartzen dituzten ardurak eta lan merkatuan dituztenak – erretiratzerakoan beste ekintza batzuk burutzeko aukerak ematen dizkie eta.

Kultura jarduerari dagokionez (zinema, antzerkia, erakusketak, hitzaldiak, etab.) 65 urtetik gora duten pertsonen %63,8ak onartzen du ez duela inoiz horrelako jarduerarik egiten. Adinak aurreratueneko (80 eta gehiago) pertsonen %83,8k adierazten dute ez dutela kultura-jarduerarik egiten, eta oso gutxi (%15) esaten dute egin nahiko lituzketela. Dena den, interesgarria da kultura-jardueretan parte hartzen ez duten pertsonen %31,2ak prezioa uste duela dela hori ez egiteko arrazoi nagusia, antzeko kopuruak denbora eza argudiatzen duelarik (%30,7). Osasun txarra, berriz, 80 urte beteak duten pertsonen artean arrazoi nagusia da (%46,2). Azkenik, haiek bizi diren tokian kultura-eskaintzarik ez dagoela azpimarratzen duten batzuk ere badira (%10).

Azkenik, bizitza sozialeko jarduerari dagokienez (bazkaltzera edo afaltzera joatea, lagunekin egotea, tabernara edo kafetegira joatea, dantzan egitera joatea, klubera edo adinekoen zentrorra joatea, etab.), 65 eta 79 urte bitarte duten lau pertsonetatik batek egunero egiten du horrelako jarduera bat (%26,2), %30,6k asteen behin egiten dute eta %33,1k hilean behin baino gutxiago (%18) edo inoiz ez (%15,1). 80 urtetik gorako artean, berriz, zenbatekoak erabat eraldatzen dira eta gehiengoa dira jarduera sozialik inoiz egiten ez dutenak (%40) edo

oso gutxitan egiten dituztenak (%20). Garrantzitsua da ere sexuari lotuta ematen den alde nabarmentzea, jarduera horiek emakumeek zein gizonen egiten badituzte ere, gizonen maizago egiten dituzte eta. Diferentzia hau nabarmenena da gainera jarduera sozialak egunero egiten dituzten artean – emakumeen %16,3a eta gizonen %28,3a –, beste kasuetan maiztasuna berdintsuagoak izanik. Desberdintasun hau genero rolei lotuta dago: gizonen etxeko esparruaren ordezkotza gune gehiago bilatzen dituzten bitartean, emakumeak kulturalki etxearekin lotutako genero-arau tradizionalak heziak izan baitira. Edonola ere, emakume gehienek egiten dituzte jarduera horiek eta badirudi adineko emakumeek ere aisiaren zati hori konkistatzen joan direla pixkanaka.

Adineko pertsonen zuzendutako zaintza zerbitzuak eta bere erabilera Urretxun

Urretxun bakarrik bizi diren adineko pertsona kopurutik harago eta hauen zaurgarritasun faktoreak zeintzuk diren ezagutzeaz gain, garrantzitsua da adineko pertsonen zaintza eta gizarteratze edo parte hartzea bultzatzeko herrian dauden baliabideak ezagutzea ere.

Atal honetan Urretxun adineko pertsonentzako dauden zerbitzu eta baliabide desberdinen deskribapena egiten da. Alde batetik, mendekotasun edo ezgaitasun egoeran dauden pertsonen zuzendutako zerbitzu eta laguntza ekonomikoak (eguneko zentroak, etxeko zerbitzua, familia inguruko zaintzetarako prestazio ekonomikoa -FIZPE-, laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa -LPPE- eta laguntza teknikorako programa). Bestetik, bakarrik bizi diren adineko pertsonen Eusko Jaurlaritzak eskaintzen dien Telelaguntza zerbitzua eta, azkenik, edozein adineko pertsonari zuzenduta dauden hainbat zerbitzu eta programen (Jubilatuena etxea, Tipi- Tapa programa, Urretxu Lagunkoia egitasmoa, adibidez) deskribapena egiten da.

Mendekotasun egoera batean dauden adineko pertsonen zuzendutako zerbitzu eta diru-laguntzak

Jarraian deskribatzen diren zerbitzu eta diru-laguntzak haien etxean bizi diren, baina bere eguneroko jarduerak burutzeko beste pertsona batzuen laguntza behar duten pertsonen zuzenduta daude.

Lehenik eta behin, **Etxeko laguntza zerbitzua (EELZ)** aipatu dezakegu. Zerbitzu hau laguntza- eta prebentzio-izaerako zerbitzu bat da. Bere helburu nagusia mendetasun-egoeran edo mendetasun-arriskuan dauden erabiltzaileek bere etxe eta inguruetik atera gabe dauzkaten laguntza beharrak asetzeko da; bereziki, zaintza pertsonala eta etxeko lanei lotutako beharrak, alegia. Adineko pertsonen bizi baldintza eta eguneroko ohiturekiko ikuskaritza eta kontrol funtzio bat ere baduela esan daiteke, adibidez: medikazioa hartzen dutela ziurtatzea, egoki elikatzen direla, higiene pertsonala mantentzen dutela, etabar. Horrek, egoera batek okerrera egin ez gero, familia edo gizarte zerbitzuak informatu eta modu azkar edo prebentibo batean esku hartu ahal izatea ahalbidetzen du.

Dena den, zerbitzu honen eskaintza mugatua da, bai sarbidea izateko hainbat baldintza bete behar direlako (mendekotasun balorazioan puntuazio minimo bat eskuratu, norberaren baliabide ekonomikoak mugatuak izatea, etabar.), hala nola, zerbitzuaren estaldura eta intentsitatea ere mugatuak direlako. Hauek dira 2018an Urretxun etxez-etxeke zerbitzuaren datuak, erabiltzaile kopurua eta zerbitzuaren intentsitatea kontuan izanda. Gainera, Urola Garaia eta Gipuzkoako lurraldeekin ere konparaketa egiten da:

ETXEZ-ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA (EELZ) ERABILTZAILE KOPURUA ETA INTENSITATEA KONTUAN HARTUTA URRETXU, UROLA GARAIA ETA GIPUZKOAN. 2018.

ETXEZ-ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA (EELZ)	Urretxu	Urola Garaia	Gipuzkoa
ERABILTZAILEAK			
EELZren erabiltzaile diren 65 urte eta gehiagoko pertsonak abenduaren 31n	21	198	3.281
EELZren erabiltzaile diren 65 urte eta gehiagoko emakumezkoak abenduaren 31n	20	155	2.488
ERABILTZAILEEN EGOERA			
EELZren urtean zeharreko erabiltzaile diren mendetasun-egoeran dauden 65 urte eta gehiagoko pertsonak	20	203	3.213
EELZren urtean zeharreko erabiltzaile diren 65 urte eta gehiagoko pertsona autonomoak	5	47	974
INTENSITATEA			
EELZren guztirako intentsitatea (erabiltzailea den pertsonako asteko orduak)	3,01	4,35	4,74
Mendetasun-egoeran dauden pertsonentzako EELZren intentsitatea (erabiltzailea den pertsonako asteko orduak)	3,42	4,44	5,16
Autonomoak diren pertsonentzako EELZren intentsitatea (erabiltzailea den pertsonako asteko orduak)	1,41	3,94	3,33

12. Taula: Etxez-etxeke laguntza zerbitzua erabiltzaile kopurua eta intentsitatea kontuan hartuta Urretxu, Urola Garaia eta Gipuzkoan.
2018ko urtarrilaren 1eko datuak.
Iturria: Behagi, Gipuzkoako Gizarte Behatokia.
Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Taula honen analisitik hainbat datu atera ditzakegu. Lehenik eta behin, ikus daiteke, 2018ko abenduaren 31an guztira etxez-etxeke laguntza zerbitzu hau 21 adineko pertsonak jasotzen zutela. Horietatik, 20 emakumezkoak dira eta soilik bat gizonezkoa. Laguntza hau, batik bat mendekotasun egoeran dauden pertsonak jasotzen dute, soilik autonomoak diren 5 adineko pertsonak jaso baitute laguntza hau 2018ko urtean zehar, mendekotasun egoeran dauden pertsonak 20 izan diren bitartean. Urretxun mendekotasun egoeran dauden pertsonak 215 direla kontutan hartuta, zerbitzu hau populazio honen %9,3ak jaso zuela erakusten dute datuek.

Zerbitzuaren intentsitateari dagokionez, hau da, pertsona bakoitzak astean zerbitzu honetatik jasotzen dituen ordu kopuruari begira, batez bestekoa 3 ordukoa dela ikusi daiteke, Urola

Garaia eta Gipuzkoako batez bestekoa baino baxuagoa; zehazki, ordu bat baxuagoa, alegia. Dena den, badago aldea erabiltzaileen egoeraren arabera. Horrela, mendekotasun egoeran dauden erabiltzaileen artean intentsitatea zertxobait handiagoa da, zehazki, 3,42 ordukoa, autonomoen artean, berriz, 1,41 den bitartean.

Taula honetatik erator daitezkeen datuez gain interesgarria da ere Urretxuko etxez etxeko laguntza zerbitzua jasotzen duten pertsonen adinari erreparatzea. Hurrengo taulan zerbitzu hau jasotzen duten pertsonen zenbatekoa adin tartearen arabera azaltzen da:

URRETXUN ETXEZ-ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA (EELZ) JASOTZEN DUEN ERABILTZAILE KOPURUA ETA EHUNEKOA ADINAREN ARABERA. 2018.

ADIN TARTEA	Biztanle kopurua	Zerbitzua jasotzen duten pertsona kopurua	Zerbitzua jasotzen dutenen ehunekoa	Biztanleko zerbitzua jasotzen duten ehunekoa
51-65	--	3	%14,21	--
51-55 urte		2		
56-60 urte		0		
61-65 urte		1		
66-85	1342	10	%47,61	%0,74
66-70 urte		0		
71-75 urte		1		
76-80 urte		4		
81-85 urte		5		
≥ 86	215	8	%38,1	%3,72
86-90 urte		4		
90tik aurrera		4		

13. Taula: Urretxun Etxez-etxeko laguntza zerbitzua (EELZ) jasotzen duen erabiltzaile kopurua eta ehunekoa adinaren arabera. 2018.

2018ko urtarrilaren 1eko datuak.

Iturria: Gizarte Zerbitzuak. Urretxuko Udala.

Egilea: Farapi Koop. Elkarte

Datu hauek ikusita, erabiltzaileen gehiengoa 75 urtetik gora dituela antzematen da (%80,1, 17 pertsona). 66 eta 84 urte bitarte dutenak %47,6 osatzen dute (10 pertsona) eta 86 urte baino gehiago dutenek %38,1 (8 pertsona). Lehenengo kasuan, erabiltzaileen erdiak 80 urte baino gehiago ditu (5 pertsona) eta bigarren kasuan 90 urte baino gehiago (4 pertsona).

Baina erabiltzaileen banaketatik harago, interesgarria da ere adin tarte desberdinetan dagoen populazio osoaren zenbatekoak jasotzen duen zerbitzu hau ezagutzea. Egungo datuen arabera, 66 eta 84 urte bitartekoen %0,74ak eta 85 urtetik gorakoak %3,7ak jasotzen dute etxez etxeko laguntza Urretxun. Dena den, soilik menpekotasun egoera batean dauden adineko pertsonak kontutan hartu ez gero, portzentaje hauek gora egiten dutela agerian da. Kasu honetan 65 eta 79 urte bitartekoen %9,2ak (5 pertsona) eta 80 urtetik gorakoak % 8,1ak (13 pertsona) jasotzen dutela zerbitzu hau erakusten dute datuek.

Haien etxean bizi diren adineko pertsonak erabili ahal duten beste zerbitzu bat eguneko zentroa da. Zerbitzu hau mendekotasun egoera batean dauden pertsonen egunean zehar zerbitzua eskaintzen dien arreta zentroak dira. Zerbitzu honen helburu nagusia pertsonaren gaitasun fisiko, psikologiko eta sozialak mantentzea eta indartzea da, baita ere garraio, higiene, jangela eta osasunaren jarraipeneko zerbitzuak ematea ere.

Urretxuren kasuan 32 plaza dituen eguneko zentro bat dago herrian (Sendian Zentroa). Hurrengo taulan zerbitzu honen okupazio-tasa, txandakatze indizea, sarbiderako igarotzen den batez besteko denbora eta estaldura zeintzuk diren adierazten da:

URRETXUKO EGUNeko ZENTROAREN ZERBITZUAK DUEN OKUPAZIO TASA, TXANDAKATZE INDIZEA, SARBIDERAKO IGAROTZEN DEN BATEZ BESTEKO DENBORA ETA ESTALDURA. 2018.

EGUNeko ZENTROAK	Urretxu	Urola Garaia	Gipuzkoa
ZERBITZUAREN ESTALDURA			
Plazak guztira (65 urte eta gehiagoko 100 pertsonen arabera)	2,21	1,41	1,14
OKUPAZIO-TASA			
Foru-egoitzetako eguneko arretarako baliabideen okupazio-tasa: guztira	100	98,84	93,38
Foru-egoitzetako eguneko arretarako baliabideen okupazio-tasa: gizonak	25	31,4	24,92
Foru-egoitzetako eguneko arretarako baliabideen okupazio-tasa: emakumeak	75	67,44	68,46
TXANDAKATZE INDIZEA eta ESKAERATIK SARBIDERA ARTEKO DENBORA			
Plaza Foraletako txandakate indizea	1,41	1,45	1,38
Zerbitzuaren eskaeratik zerbitzurako sarbidera arte igarotako batez besteko denbora (egunetan)	54	63,02	46,15

14. Taula: Eguneko zentroetako Urretxu, Urola Garaia eta Gipuzkoako datuak.
2018ko urtarrilaren 1eko datuak.
Iturria: Behagi, Gipuzkoako Gizarte Behatokia.
Egilea: Farapi Koop. Elkarte

Datu hauek ikusita, Urretxuko eguneko zentroetako okupazio-tasa %100koa dela agerian da, hau da, eskaintzen diren 32 plazak beteta daude. Honek, eguneko zentroko eskaera altua dela erakusten du, baita Urola Garaia eta Gipuzkoan ere, non okupazio-tasak oso %98,84 eta %93,38 dira, hurrenez hurren. Dena den, Urretxuren kasuan txandakatze indizea 1,41ko da, hau da, urtean zehar eguneko zentrotik pasatzen den pertsona kopurua, eskaintzen diren plazak 32 izanik, guztira, 45 da. Azkenik, zerbitzuaren eskaeratik zerbitzurako sarbide ematen den arte igarotako batez besteko denbora 54 egun dira. Denbora hau Urola Garaiko batez bestekoa baino baxuagoa da, baina Gipuzkoakoa baino altuagoa.

Azkenik, erabiltzaileen ezaugarri sozio demografikoei dagokienez, alde batetik, erabiltzaileen gehiengoak emakumezkoak direla agerian da (%75), gizonetzkoak %25a bakarrik direlarik. Adinari dagokionez, kasu honetan ere erabiltzaileen gehiengoak 75 urtetik gora ditu. Zehazki, eguneko zentroan 10 erabiltzaileetatik 9 baino gehiagok dute 75 urtetik gora (30 pertsona).

Datu honek erabiltzaileen batez besteko adina eguneko zentroetan etxez etxeko zerbitzuan baino altuagoa dela erakusten du.

Zerbitzu honek adin tarte honetan dauden pertsonen artean duen estaldurari dagokionez, Urretxun bizi diren 65 urte baino gehiagoko 100 pertsona bakoitzeko eguneko zentroan 2,21 plaza daudela erakusten dute datuek. Zifra hau Urola Garaia (1,41) eta Gipuzkoan (1,14) baxuagoa da. Adin tarte bakoitzean kokatzen den populazioaren artean dagoen erabiltzaile kopuruari dagokionez, berriz, 66-84 adin tarteko 20 pertsonak jasotzen dute zerbitzu hau, hau da, populazio honen %1,49ak. 85 urtetik gorako pertsonen kasuan, berriz, 12 dira erabiltzaileak pertsonak jasotzen dute zerbitzua, populazio honen %5,58ak.

URRETXUKO EGUNeko ZENTROAREN ERABILTZAILK KOPURUA, ADINAREN ARABERA. 2018.

ADIN TARTEA	Biztanle kopurua	Zerbitzua jasotzen duten pertsona kopurua	Zerbitzua jasotzen dutenen ehunekoa	Biztanleko zerbitzua jasotzen duten ehunekoa
65-84	1342	20	%62,5	%1,49
66-70 urte		1		
71-75 urte		1		
76-80 urte		7		
81-85 urte		11		
86tik aurrera	215	12	%37,5	%5,58
86-90 urte		8		
90tik aurrera		4		

15. Taula: Urretxuko eguneko zentroaren erabiltzaile kopurua, adinaren arabera. 2018ko urtarrilaren 1eko datuak. Iturria: Gizarte Zerbitzuak. Urretxuko Udala. Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Azkenik, badira zerbitzu hauetaz aparte haien etxean bizi diren eta **mendekotasun egoera batean dauden adineko pertsonen zuzendutako diru-laguntzak**. Hiru dira, zehazki, eskuratu daitezkeen diru-laguntzak: familia inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoa (FIZPE), laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa (LPPE) eta laguntza teknikorako programa. Lehenengo biak zaintza beharrei lotuta daude eta zaintza zerbitzuak eskuratzea dute helburu. Hirugarrenak, berriz, bere etxean bizi diren adineko pertsonen bere eguneroko jarduerak egiteko eta haien autonomia ahalik eta gehien mantentzeko behar dituzten laguntza-produktuak eskuratzea du helburu (gurpildun ahulki bat, dutxa garaian laguntzeko gailuak, ohe higikorak, etxe inguruko egokitzapen txikiak, etabar.).

Zaintza beharrei lotutako diru laguntzei dagokienez, Urretxun 2018an 65 urtetik gorako 145 pertsonen kobratzen zuten diru laguntza hauetako bat, hau da, herrian bizi ziren adineko hamar pertsonen artean bat inguruk (%9,3). Dena den, soilik mendekotasun egoera batean zeuden adineko pertsonak kontutan hartuta, ehunekoak izugarri egiten du gora eta pertsona hauen artean bi herenak baino gehiago direla diru laguntza hauetako titularrak erakusten dute datuek (%67,4).

**URRETXUN MENDEKOTASUN EGOERA BATEAN DAUDEN ADINEKO PERTSONEN ZAINZA BEHARRAK
ASETZKO DIRU LAGUNTZAK ESKURATZEN DITUZTEN PERTSONA KOPURUA. 2018.**

DIRU LAGUNTZA MOTA	Jasotzaile kopurua	65 urtetik gorako biztanleak (%)	Mendekotasun egoera batean dauden adinekoak (%)
Familia inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoa (FIZPE)	81	%5,2	%37,6
Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa (LPPE)	64	%4,1	%29,7
Guztira	145	%9,3	%67,3

16. Taula: Urretxun mendekotasun egoera batean dauden adineko pertsonen zaintza beharrak asetzeko diru laguntza bat eskuratzen duen pertsona kopurua eta ehunekoak. 2018ko urtarrilaren 1eko datuak.
Iturria:Behagi. Gipuzkoako Gizarte Behatokia.
Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Hortaz, diru laguntza hauek mendekotasun egoera batean dauden adineko pertsonen zaintza beharrak asebetetzen laguntzeko paper garrantzitsu bat dutela erakusten dute datuek. Horregatik, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2019an laguntza ekonomiko hauek jasotzen dituzten pertsonen egoera eta jasotzen duten zaintzaren kalitatea ezagutzeko lurralde osoan etxeko bisitak egiteko baliabideak eskaini dizkie udalei.

Prozesu honen baitan, Urretxuko udalari dagozkion datuak eskuratu ditugu eta hauei esker diru laguntza hauek jasotzen dituzten pertsonen egoera pixka bat hobeto ezagutzeko aukera izan dugu. Gainera, hauen artean zenbat bizi diren bakarrik ere identifikatu ahal izan dugu. Jarraian datu hauetatik eratorri ahal diren hainbat ondorio azaltzen dira.

Lehenik eta behin, Urretxun diru laguntza hauetako bat jasotzen duten adineko pertsonen artean, soilik %15,8a (29 pertsona) bizi da bakarrik bere etxean. Datu hauen arabera, beraz, Urretxun bakarrik bizi diren adinekoen %5ak soilik eskuratzen du horrelako diru laguntza bat.

Diru laguntza motari dagokionez, bakarrik bizi diren pertsonen gehiengoak (%86,2, 25 pertsona) laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa (LPPE) jasotzen du eta oso gutxi eskuratzen dute familia inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoa (FIZPE) (4 pertsona). Egoera hau erabat ulergarria da, azken diru laguntza hau eskuratzeko eskatzen diren baldintzen artean, zaintzailea mendeko pertsonarekin bizitzea eta etxe berean erroldatuta egotea dago eta.

Pertsona hauek jasotzen duten arretari dagokionez, eskuratutako datuen arabera, bakarrik bizi diren pertsonen erdia baino gehiago bakarrik egoten da bere etxean gauean zehar (58,6, 17 pertsona), %24,1a, berriz, etxe bakarreko etxebizitza batean erroldatuta egon arren ez da inoiz bakarrik egoten (7 pertsona). Azkenik, %17,2a goiz osoa (%6,9) edo arratsalde osoa (%10,3) dago bere etxean bakarrik.

Kalera ateratzeko maiztasunari dagokionez, bakarrik bizi diren pertsonen artean %72,4a kalera ateratzen da egunero (21 pertsona) eta soilik %17,2a ateratzen da bakarrik asteen behin (5

pertsona). Badira gero hilean behin edo noizean behin soilik kalera ateratzen direnak, baina gutxi dira (%10,3, 3 pertsona).

Datu hauek beste senide edo zaintzaile batekin bizi diren pertsonenekin alderatu ez gero, nabarmentzekoa da bakarrik bizi diren pertsonen artean ohikoagoa dela egunero kalera ateratzea eta ez direla kalera inoiz ateratzen ez diren pertsonak topatu. Hortaz, bakarrik bizi diren adineko pertsonen artean osasuna eta mugikortasuna hobek direla pentsatzeko arrazoiak ematen dituzte datu hauek. Seguru asko bakarrik bizitzen jarraitzeko arrazoiak izanik, alegia.

Pertsona hauen harreman sareari dagokionez, eskuratutako datuen arabera, bakarrik bizi diren pertsonen artean denak egoten dira haien familiarekin harremanetan egunero (%58,6, 17 pertsona) edo astero (%41,4, 12 pertsona). Lagunekin pasatzen duten denborari dagokionez, aniztasun gehiago dago eta hamarretatik lauk haien lagunak egunero ikusten dituzten bitartean (%41,1, 12 pertsona), herenak astean behin ikusten ditu (%31, 9 pertsona) eta %27,6ak soilik noizean behin du harremana haiekin (8 pertsona).

Azkenik, etxean bisitarik jaso gabe hilabete baino gehiago dauden adineko pertsonak oso gutxi direla erakusten dute datuek (%4,4) eta egunero bisitak jasotzen dituela gehiengoak (%60,7). Gainera, jasotako datuen arabera, ez dago bizikidetzaren unitate motaren arabera desberdintasun handirik. Horrela, bakarrik bizi diren pertsonen %62,1ak (18 pertsona) eta beste norbaitekin bizi direnen %60,4ak (93 pertsona) egunero jasotzen du bisitaren bat bere etxean. Hiru egunero edo astero jasotzen dituztenek %8,7a eta %25,7a dira, hurrenez hurren. Kasu honetan ere bizikidetzaren unitatearen arabera desberdintasun handirik ez dagoelarik.

Dena den, deigarria da norbaitekin bizi diren pertsonen artean hilabete baino gehiago bisitarik jaso gabe egon daitezkeen pertsonak badaudela (%5,2, 8 pertsona), bakarrik bizi diren pertsonen artean egoera hau ematen ez den bitartean. Datu hauek etxean bakarrik bizitzea ez dela beti ere bakardadearen adierazgarri eta, alderantziz, beste norbaitekin bizi den pertsona bat bakarrik edo isolatuta sentitu ahal dela gogorarazten dute. Dena den, kontutan eduki behar da datu hauek adierazgarritasunaren aldetik mugak dituztela – populazio handiago bat kontutan hartzea behar da ondorio egoki batzuk ateratzeko – eta beharrezkoa dela horrelako gaiak modu sakonago batean aztertzea. Edozein kasutan, datu hauek badira desberdintasun horren adierazle edo oroigarri bat.

Azkenik, lehenago aipatu den bezala, badira ezgaitasuna duten edo mendetasun egoeran dauden pertsonen zuzendutako beste diru laguntza batzuk: **ETXETEK programatik bideratutakoak**, hain zuzen ere. Diru laguntza hauek adineko pertsonak haien etxean egoteko eta eguneroko jarduerak egiteko autonomia eta gizarteratze baldintzak egokiak edukiko dituztela bermatzeko laguntza-produktuak eskuratzeko laguntza ekonomikoa eskaintzen dute.

Horretarako, dauden laguntzako produktuei buruzko informazioa eta orientabidea ematen da, baita irisgarritasuna hobetzea ahalbidetzen duten ingurune fisikoaren egokitzapenei buruzkoa ere; eguneroko bizitzako jarduerak egiteko beharrezkoak diren laguntzako produktu berreskuragarriak lortzen laguntzen du, mailegu-sistemaren bitartez, bai pertsona bere etxebizitzan dagoenean, bai bizitoki- edo egoitza-zerbitzuren batean dagoenean; eta ohiko

etxebizitza egokitzeko proposamenak egiten ditu, eta horri esker etxebizitzaren irisgarritasun-maila eta pertsonak haren barruan izango duen autonomia-maila hobetzea ahalbidetzen da.

Hauek dira programa honek 2018 urtean Urretxun, Urola Garaian eta Gipuzkoan izan zuen irismena eta erabiltzaile kopuruaren inguruko datuak.

ETXETEK LAGUNTZA TEKNIKOETAKO PROGRAMAREN IRISMENA ETA LAGUNTZAK JASOTZEN DITUZTEN PERTSONEN DATUAK URRETXU, UROLA GARAIA ETA GIPUZKOAKOAN. 2018.

ETXETIK laguntza teknikoetako programa	Urretxu	Urola Garaia	Gipuzkoa
Laguntza teknikoen programaren irismena (65 urte eta gehiago dituzten 100 pertsonen artean)	2,07	1,84	1,56
Urtean zehar laguntzak jasotzen 65 urte eta gehiago dituzten pertsonak	30	112	2.458

17. Taula: ETXETEK laguntza teknikoetako programaren Urretxu, Urola Garaia eta Gipuzkoako datuak.
2018ko urtarrilaren 1eko datuak.
Iturria: Behagi, Gipuzkoako Gizarte Behatokia.
Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Taula honetan ikus dezakegun moduan, 2018an ETXETEK laguntza teknikoen programako laguntza jaso zuten 65 urte baino gehiagoko pertsonak 30 izan ziren Urretxun, hau da, herriko adineko biztanleriaren %1,9a. Horietatik 20 emakumeak izan ziren eta 10 gizonak. Laguntza teknikoko programa honen irismena Urretxun 2,07koa da, Urola Garaia eta Gipuzkoako batez besteko baino zertxobait altuagoa.

Bakarrik bizi diren adineko pertsoneri zuzendutako zerbitzuak

Orain arte adineko pertsonak orokorrean jasotzen dituzten zerbitzu eta baliabideez aritu gara, ez soilik bakarrik bizi diren adinekoek jasotzen dituztenez. Bakarrik bizi diren adineko pertsonak espezifikoki jasotzen duten laguntza bakarria Telelaguntza zerbitzua da.

Telelaguntza-zerbitzuak telealarmako komunikazio-baliabidearen bidez bakarrik bizi diren pertsoneri segurtasuna eta berehalako laguntza eskaintzen dien zerbitzua da. Telefono-linearen bitartez eta ekipamendu informatiko espezifikoki bati esker erabiltzaileek etengabeko arreta-zerbitzu batekin berehala harremanetan jartzeko aukera dute (24 ordu egunean eta urteko egun guztietan arreta eskaintzen du) eta, beharrezkoa izanez gero, behar den arreta mota berehala jasotzeko aukera erraztuko zaie, autonomia- eta segurtasun-sentimendua indartzen laguntzeko.

Hurrengo taulan Telelaguntza zerbitzuko Urretxu, Urola Garaia eta Gipuzkoako 2018. urteko erabiltzaile eta estaldura datuak jasotzen dira:

TELELAGUNTZA ZERBITZUA URRETXU, UROLA GARAIA ETA GIPUZKOAKO ERABILTZAILE ETA ESTALDURA DATUAK. 2018.

TELELAGUNTZA ZERBITZUA	Urretxu	Urola Garaia	Gipuzkoa
ERABILTZAILEAK			
Erabiltzaileak diren pertsonak abenduaren 31n	140	654	16.369
65 urte eta gehiagoko erabiltzaileak diren pertsonak abenduaren 31n	137	639	16.020
65 urte eta gehiagoko erabiltzaileak diren emakumezkoak abenduaren 31n	116	497	12.626
65 urte eta gehiagoko erabiltzaileak diren gizonezkoak abenduaren 31n	21	142	3.394
ESTALDURA			
Pertsona adinduentzako telelaguntzaren estaldura (65 urte eta gehiagoko 100 pertsonen arabera tasa)	9,44	10,48	10,14
Gizonezko adinduentzako telelaguntzaren estaldura (65 urte eta gehiagoko 100 pertsonen arabera tasa)	3,37	5,36	5,03
Emakumezko adinduentzako telelaguntzaren estaldura (65 urte eta gehiagoko 100 pertsonen arabera tasa)	14,01	14,42	13,94

18. Taula: Telelaguntza zerbitzua Urretxu, Urola Garaia eta Gipuzkoako datuak.
2018ko urtarrilaren 1eko datuak.
Iturria: Behagi, Gipuzkoako Gizarte Behatokia.
Egilea: Farapi Koop. Elkarte

Taula honetatik hainbat datu atera ditzakegu: batetik, Telelaguntza zerbitzua jasotzen duten erabiltzaileenak, eta bestetik, zerbitzuaren estaldurarenak.

2018ko abenduaren 31an, Telelaguntza zerbitzua Urretxuko 137 adineko pertsonek jasotzen zuten. Horien artean, hamarretatik zortzi baino gehiago emakumeak ziren (%84,6, 116 pertsona). Beraz, zerbitzu honek adineko pertsonen artean 9,4 puntuko estaldura du; hau da, herrian adin honetatik gora duten 100 pertsonetatik hamar inguruk jasotzen dute zerbitzu hau. Erabilera, gainera, nabarmen altuagoa da emakumeen artean (14 emakume 100 adineko emakume bakoitzeko), gizonekin alderatuta (3,3 gizon 100 adineko gizon bakoitzeko).

Datu hauek Telelaguntza zerbitzuak Euskadi mailan bere erabiltzaileen perfilaren inguruan eskaintzen dituen datuekin alderatzen baditugu, adineko erabiltzaileen artean soilik %57,2a bizi zela bakarrik bere etxean, %78,08 emakumeak zirela eta %80ak 80 urtetik gora zuela ikusi dezakegu (Beti ON, Memoria 2018). Datu hauek Urretxuko errealitatera estrapolatzen baditugu, bakarrik bizi diren adineko pertsona erabiltzaileak 79 izango lirateke, hau da, herrian bakarrik bizi diren adinekoen %13,7a. Horien artean, 80 urtetik gora izango luketenak 63 inguru lirateke eta, hortaz, Urretxuren kasuan zerbitzu honek bakarrik bizi diren 80 urtetik gorako pertsonen %23,5a artatuko lukeela pentsatu dezakegu; adin honetatik gora duten eta bakarrik bizi diren lau pertsonetatik bat.

Datu hauek zerbitzuak bailaran eta probintzian duen erabilerarekin konparatu ez gero, erabiltzaileen feminizazio tasa Urola Garaian (%77,7) eta Gipuzkoan (%78,8) Urretxun baino baxuagoa dela antzematen da. Estaldurari dagokionez, berriz, Urretxun, Urola Garaian (10,48) eta Gipuzkoan (10,1) baino zertxobait baxuagoa da.

Azkenik, esan beharra dago zerbitzu honekiko erabiltzaileen iritzia orokorrean oso ona dela eta elkarrizketatu ditugun adineko pertsona orok zerbitzu hau oso ondo baloratu dutela. Honek agerian uzten du bakarrik bizi diren adinekoei espezifikoki bideratutako zerbitzuen beharra badagoela eta oraindik ere populazio honen ongizatea eta bizi kalitatea nola hobetu dezakegun pentsatzeko beharra dagoela.

Adineko pertsonen parte hartzerako zerbitzuak

Azkenik, adineko pertsonak mendekotasun egoera batengatik eratorritako beharregatik jasotzen dituzten zerbitzu eta laguntzez gain, Urretxun badira ere haien parte hartzera bideratutako hainbat zerbitzu eta programa. Hauen artean bi zerbitzu nagusi identifikatu ditugu: batetik, *Aterpe* jubilatuen egoitza eta, bestetik, Euskadi Lagunkoia programaren baitan sortutako hainbat ekintza eta dinamika. Hurrengo atalean hauen deskribapen xume bat egiten da.

Aterpe jubilatuen egoitzak, adinekoen parte hartzerako eta sozializatorako eremuak eskaini nahirik, adineko pertsonentzako jarduera sozialak, aisialdikoak eta kulturalak eskaintzen dituen zentroa da. Bertan adinekoentzat eskaintza zabala dago, hala nola, gimnasia tailerra, memoria lantzeko tailerra... eta beste hainbat ekintza ere antolatzen dira. Bestalde, honako zerbitzuak ere eskaintzen dira: ile-apaindegia, taberna eta kafetegia.

*Euskadi Lagunkoia*³⁵ programatik eratorritako jarduerari dagokionez, Urretxuren kasuan herriko adineko pertsonen errealitatea ezagutzeko asmoarekin 2016 urtean zehar diagnostiko bat burutu zen, bertan 194 adiskidetasun galdeketa egin zitzairen herriko adinekoei eta prozesua gidatzeko talde eragile bat osatu zen. Diagnostiko hori oinarri hartuta hainbat ekimen jarri ziren martxan.

Ekimen hauen artean, herriko dendei formazio ikastaroa eman zitzairen. Adineko pertsonen autonomian laguntzako aktore garrantzitsu izanik, herriko denda hauek adinekoen beharretara nola egokitu pentsatu eta bultzatzeko ikastaroa izan zen.

³⁵ *Euskadi Lagunkoia* EAE mailan Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak sustatu eta Matia Fundazioak abiarazitako ekimena da. Helburu nagusia adinekoak Euskadiko udalerririk hobetzen parte har dezatela bultzatzea da, zahartu ahala, norik bere bizimodua izaten jarraitu ahal izateko. Horrela, programa edo ekimen honen xedea hau da: "Bizitza aktiboa eta autonomia izaten jarraitzea, hein handi batean, hiri diseinua lagunkoia izatearen, segurtasuna bermatzearen eta etxeko inguruneak egokitzearen arabera dago. Proiektu hau zahartze aktiboaren paradigmaren pean garatzen da. Adinekoekin lagunkoia den inguruneak egiturak eta zerbitzuak berrantolatzen ditu, banakoaren behar eta ahalmen ezberdinetara egoki daitezten, eta, hala, haien partaidetza sustatzen du".

Bestalde, adineko pertsonen artean ekintza fisikoa eta ohitura osasuntsuak sustatzeko asmoarekin, *Ttipi-tapa* ekimena ere jarri zen martxan. Ekimen hau, adineko pertsonak ibilaldi osasuntsuak egitera animatzeko helburuarekin sortu zen eta taldeko kideak asteazkenero goizeko 11:00etan elkartzen dira ibilaldian parte-hartzeko.

5. BIBLIOGRAFIA

- Bermejo, L. (coord.), 2010. *Envejecimiento activo y actividades socioeducativas con personas mayores guía de buenas prácticas*. Madrid. Editorial Médica Panamericana.
- Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokia (2017)“Personas mayores y participación social”.
- Del Barrio, E.; Sancho, M.; Yanguas, J., 2010. Euskal Autonomia Erkidegoko 60 urtetik goragokoen bizi-baldintzei buruzko azterlana. *Gizartea Hobetuz: documentos de bienestar social*, Nº 74. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Del Barrio, Elena, Mayoral, Olga eta Sancho, Mayte, (2015). “Estudio sobre las condiciones de vida de las personas de 55 y más años en Euskadi”, *Gizartea Hobetuz: documento de bienestar social*, 55.
- Donio, M., 2017. *La soledad de las mujeres mayores que viven solas*. Tesis Doctoral. Universitat de Valencia. Disponible en: <http://roderic.uv.es/handle/10550/58362> (Kontsulta: 2019ko Urriak 1).
- Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza, 2016. *Zahartze Aktiborako Euskal Estrategia, 2015-2020*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Fernández-Rouco, N., Sánchez, F.L. & González, R.J.C., 2012. *Transexualidad y vejez: una realidad por conocer*. Revista Kairós Gerontologia,15(5), 15-25.
- Imsero, 2011. *Libro Blanco: Envejecimiento activo*. Madrid. Ministerio de Sanidad, Política Social e Igualdad. Secretaría General de Política Social y Consumo. Instituto de Mayores y Servicios Sociales (IMSERSO).
- Martínez, T., 2011. *Pertsonarengan oinarritutako arreta gerontologikoa*. *Gizartea Hobetuz: documentos de bienestar social*, Nº 76. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Pinazo, S., Donio, M., 2018. *La soledad de las personas mayores: Conceptualización, valoración e intervención*. Colección estudios de la Fundación Pilares para la autonomía personal, Nº 5. Fundación Pilares para la Autonomía Personal.
- Prieto, D.; Herranz, D.; Rodríguez, P., 2015. *Envejecer sin ser mayor. Nuevos roles en la participación social en la edad de la jubilación*. Colección Estudios de la Fundación Pilares para la autonomía personal, Nº 2. Fundación Pilares para la Autonomía Personal.
- Prieto, D.; Etxeberria, I.; Galdona, N.; Urdaneta, E.; Yanguas, J., 2009. *Las dimensiones subjetivas del envejecimiento*. Colección Estudios. Serie Personas Mayores Nº 11007. Instituto de Mayores y Servicios Sociales (IMSERSO).
- SIIS, 2019. *Gipuzkoako pobrezia eta gizarte bazterketari buruzko 3. Inkesta. 2018*. Gipuzkoako Foru Aldundia, Gizarte Politikako Departamentua.

6. ERANSKINAK

ERANSKINA 1. URRETXUKO BAKARDADEAREN MAPA OSATZEKO EGIN DEN GUNEEN ARABERAKO SAILKAPENA (10)

Gune bakoitzaren ezaugarri soziologiko eta demografikoak kontuan izanda, honako sailkapena egitea erabaki zen:

1. GUNEA: APARICIO

Gune honetan biltzen diren auzo eta kalea: Aparicio auzoa.

Gune honen ezaugarri soziologikoak:

- Etxeak: Etxe zaharrak, berriztu gabeak eta igogailu gabe.
- Auzoaren izaera: Langile auzoa, populazio zaharra eta etorkinak.
- Mugikortasuna (aldapak eta autobusak dauden): Txarra, erdigunetik urrun eta errepidez inguratutik.
- Komertzio eta zerbitzuak (eta haiekiko gertutasuna): ez dago, soilik soziedade bat. Komertzio eta zerbitzuak kokatzen diren erdigunetik urrun.

2. GUNEA: LANDA EREMUA

Gune honetan biltzen diren auzo eta kaleak: Landa eremuko auzoak (diseminados).

Gune honen ezaugarri soziologikoak:

- Nolako etxeak: baserriak.
- Auzoaren izaera: Ez izaera berezirik.
- Mugikortasuna (aldapak eta autobusak dauden): aldapan. Hainbat guneetatik Auzobusa³⁶ pasatzen da.
- Komertzio eta zerbitzuak (eta haiekiko gertutasuna): ez dago.

3. GUNEA: MUNDO MEJOR

Gune honetan biltzen diren auzo eta kaleak: Mundo Mejor auzoa.

Gune honen ezaugarri soziologikoak:

- Nolako etxeak: Etxe zaharra eta berriztu gabeak, gehienak igogailu gabe baina batzuk badute.
- Auzoaren izaera: Langile auzoa.
- Mugikortasuna (aldapak, eta autobusak dauden): Mugikortasun oso txarra, oso aldapan dago. Auzobusa autobusa pasatzen da bertatik.
- Komertzio eta zerbitzuak (eta haiekiko gertutasuna): ez daude eta erdigunetik urrun.

4. GUNEA: ALDE ZAHARRA

Gune honetan biltzen diren auzo eta kaleak: Iparragirre eta Jauregi kaleak.

Gune honen ezaugarri soziologikoak:

- Nolako etxeak: Gehienak zaharra eta ez berriztuak (gutxik daukate igogailua).
- Auzoaren izaera: Ez izaera berezirik.
- Mugikortasuna (aldapak eta autobusak dauden): ez arazo berezirik, erdigunetik gertu.

³⁶ Auzobusa: Urretxuko auzo ezberdinetatik pasatzen den udalaren autobusa.

- Komertzio eta zerbitzuak (eta haiekiko gertutasuna): Lehen herriko zentroa zen, komertzioak bertan kontzentratzen ziren, gaur egun ez, hala ere, erdigunetik gertu dago. Bertan kokatzen diren zerbitzuak: Udaletxea eta tabernak.

5. GUNEA: ELIZALDE – GURUTZE

Gune honetan biltzen diren auzo eta kaleak: Elizalde, Gurutze eta Matxinporta kaleak. Gune honen ezaugarri soziologikoak:

- Nolako etxeak: etxe berriak eta egokituak, txaletak eta gazteentzat etxe berriak.
- Auzoaren izaera: Gazteak eta maila ekonomiko onekoak bizi dira.
- Mugikortasuna (aldapak eta autobusak dauden): ez arazo berezirik.
- Komertzio eta zerbitzuak (eta haiekiko gertutasuna): ez dago.

6. GUNEA: SANTA BARBARA

Gune honetan biltzen diren auzo eta kaleak: Santa Barbara auzoa.

Gune honen ezaugarri soziologikoak:

- Nolako etxeak: etxe zaharrak, igogailu gabeak eta txikikiak. Mugikortasun arazoak direla eta hainbat bizilagunek garajejan egin dute etxebizitza eta garajejan bizi dira.
- Auzoaren izaera: Langile auzoa.
- Mugikortasuna (aldapak eta autobusak dauden): txarra, aldapan.
- Komertzio eta zerbitzuak (eta haiekiko gertutasuna): aldapa dago iristeko.

7. GUNEA: BASAGASTI – LILIBASO – SORGINZULO

Gune honetan biltzen diren auzo eta kaleak: Basagasti, Lilibaso eta Sorginzulo kaleak.

Gune honen ezaugarri soziologikoak:

- Nolako etxeak: Etxe berriak eta egokituak, txaletak eta VPO.
- Auzoaren izaera: Ez izaera berezirik.
- Mugikortasuna (aldapak eta autobusak dauden): Aldapan dago.
- Komertzio eta zerbitzuak (eta haiekiko gertutasuna): aldapa dago iristeko.

8. GUNEA: IPEÑARRIETA – PAGOETA

Gune honetan biltzen diren auzo eta kaleak: Ipiñarrieta eta Pagoeta kaleak.

Gune honen ezaugarri soziologikoak:

- Nolako etxeak: etxe handiak, igogailuarekin gehienak.
- Auzoaren izaera: Ez izaera berezirik.
- Mugikortasuna (aldapak eta autobusak dauden): ez dago aldapan eta herrigunean dago.
- Komertzio eta zerbitzuak (eta haiekiko gertutasuna): Komertzio dezente eta zerbitzu asko bertan edo inguruan: anbulatorioa, ertzaintza, geltokia, eskola, emakumeen etxea (etorkizunean bertan kokatuko dira adinekoentzat etxe batzuk).

9. GUNEA: ERDIALDEA

Gune honetan biltzen diren auzo eta kaleak: Nekolalde, Labeaga, Gernikako Arbola plaza eta Areizaga kaleak.

Gune honen ezaugarri soziologikoak:

- Nolako etxeak: denetik.
- Auzoaren izaera: Ez izaera berezirik.
- Mugikortasuna (aldapak eta autobusak dauden): Ez arazo berezirik.
- Komertzio eta zerbitzuak: herriko erdigunea, komertzio eta zerbitzu gehienak bertan daude.

10. GUNEA: BARRENKALE – SAN MARTIN

Gune honetan biltzen diren auzo eta kaleak: Barrenkale eta San Martin kaleak.

Gune honen ezaugarri soziologikoak:

- Nolako etxeak: etxe handiak, igogailua jarri dute gehienetan.
- Auzoaren izaera: Ez izaera berezirik.
- Mugikortasuna (aldapak eta autobusak dauden): erdigunetik gertu, laua eta bidegorria.
- Komertzio eta zerbitzuak (eta haiekiko gertutasuna): Ez zerbitzu eta komertziorik baina erdigunetik gertu eta zerbitzuetatik gertu.

Proyecto desarrollado por

